

DONEZTEBE-ELIZONDO TARTEAN BIZIKLETENTZAKO ETA OINEZKOENTZAKO BIDE-TARTEA (BIDASOAKO BIDE BERDEA) EGOKITZEKO OBRAK KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULEN AGIRIAREN LABURPEN-TAULA.

KONTRATUAREN XEDEA:

CEDERNA GARALUR Elkarteak sustatutako "DONEZTEBE-ELIZONDO TARTEAN BIZIKLETENTZAKO ETA OINEZKOENTZAKO BIDE-TARTEA (BIDASOAKO BIDE BERDEA) EGOKITZEKO OBRAK" gauzatzea, KREAN KOOP. ELK. ingeniartza-estudioko 24967 elkargokide-zenbakidun Juan Carlos Ovalle Cortisoz jaunak, bide, ubide eta portu ingeniariak, 2024ko uztailean idatzitako proiektu teknikoari dagozkionak.

Obra horiek "Europar Batasunak finantzatzeko duen 'Next GenerationEU' - Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren" finantziakzioa dute.

Baldintza-agiri hau 'Next Generation EB' funtsen barnean kokatzen da, Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan (Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa eta hura garatzeko araudia ezartzen dituen), eta, zehazki, 14. Osagaiaren barnean ("Turismo-sektorearen Modernizazio eta Lehiakortasun Plana"), 1. inbertsioan ("Turismo-eredua jasangarritasunerantz eraldatzea"), 2. azpineurrian ("Turismo-jasangarritasuneko planak helmugan"), trantsizio berdea, trantsizio digitala eta turismo-lehiakortasuna hobekuntzaren arloetan turismo-sektorea eraldatzeko jardueretarako.

Esku-hartze hori Suspertze eta Erresilientzia Erregelamenduaren VI. eranskinean jasota dagoen 075 - "Bizikletentzako azpiegitura" klima-etiketan jasota dago, eta % 100ean laguntzen du klima- eta ingurumen-helburuak lortzen. Etiketa hori justifikatuta dago, izan ere Bidasoako bide berdea Elizondoraino luzatuta, Txikito trenaren garai bateko trazadura egokitzeari amaiera ematen zaio. Horrela, TEKUaren ia lurralde osoa egituratuko du oinezkoentzako eta bizikletentzako bide horrek, eta herriar gehienak mugikortasun jasangarriaz baliatu ahal izanen da, herrien arteko komunikazioa modu atseginagoan eta ekologikoagoan erraztuta.

KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA:

MILIOI BAT, BERREHUN ETA LAUROGEITA BEDERATZI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO ETA LAUROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (1.299.999,99 €), BEZik gabe.

LIZITAZIO-AURREKONTUA:

MILIOI BAT, BERREHUN ETA LAUROGEITA BEDERATZI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO ETA LAUROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (1.299.999,99 €), BEZik gabe..

MILIOI BAT, BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO ETA LAUROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (1.572.999,99 €), BEZa barne.

LANAK EGITEKO EPEA: Obrak ZORTZI HILABETEKO EPEAN amaitu eta entregatu beharko dira.

BEHIN-BEHINEKO BERMEA: EZ DA ESKATZEN.

ESLEIPEN-PROZEDURA: ERKIDEGOAREN ATALASETIK BEHERAKO PROZEDURA IREKIA

IZAPIDETZEA: ARRUNTA.

EKONOMIA-KAUDIMENA:

Administrazio Klausula Partikularreko 8. klausula

GAITASUN TEKNIKO:

Administrazio Klausula Partikularreko 8. klausula

PREZIOEN BERRIKUSPENA: Ez.

LOTEEN DISEINUA: Ez.

ALDAERAK ONARTZEA: EZ.

ESLEIPENA ERABAKITZEKO IRIZPIDEAK:

Formula bidez kuantifika ez daitezkeen irizpideak: gehienez 40 puntu.

Memoria teknikoa: gehienez 40 puntu.

1.- Proiektuaren analisia: 0 eta 25 puntu bitartean baloratuko da.

2.- Lan-programa: 0 eta 15 puntu bitartean baloratuko da.

Formula bidez kuantifika daitezkeen irizpideak: gehienez 60 puntu.

Eskaintza ekonomikoa: gehienez 40 puntu.

Gizarte-irizpideak: gehienez 10 puntu.

Berre-epe gehigarria: gehienez 10 puntu.

ESKAINZAK AURKEZTEKO EPEA:

Eskaintzak aurkezteko epea Nafarroako Kontratazio Atariko lizitazio-iragarkian zehaztutakoa izanen da, eta epe hori, gutxienez, 15 egun naturalekoa izanen da, lizitazio-iragarkia Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

ESKAINZAK AURKEZTEA:

Nahitaezkoa da Nafarroako Lizitazio Elektronikoen Plataformaren (NALEP) bidez aurkeztea.

**DONEZTEBE-ELIZONDO TARTEAN BIZIKLETENTZAKO ETA
OINEZKOENTZAKO BIDE-TARTEA (BIDASOAKO BIDE BERDEA)
EGOKITZEKO OBRAK KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULEN
AGIRIA.**

“Europar Batasunak finantzatzeko duen ‘Next GenerationEU’ - Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana”.

LEHENENGO KLAUSULA. - KONTRATUAREN XEDEA ETA KALIFIKAZIOA.

Baldintza-agiri hau ‘Next Generation EU’ funtsen barnean kokatzen da, Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan (Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa eta hura garatzeko araudia ezartzen dituen), eta, zehazki, 14. Osagaiaren barnean (“Turismo-sektorearen Modernizazio eta Lehiakortasun Plana”), 1. inbertsioan (“Turismo-eredua jasangarritasunerantz eraldatzea”), 2. azpineurrian (“Turismo-jasangarritasuneko planak helmugan”), trantsizio berdea, trantsizio digitala eta turismo-lehiakortasuna hobekuntzaren arloetan turismo-sektorea eraldatzeko jardueretarako.

Esku-hartze hori Suspertze eta Erresilientzia Erregelamenduaren VI. eranskinean jasota dagoen 075 - “Bizikletentzako azpiegitura” klima-etiketan jasota dago, eta % 100ean laguntzen du klima- eta ingurumen-helburuak lortzen.

Administrazio Klausulen Agiri honetan aipatzen den **kontratuaren xedea** da CEDERNA GARALUR ELKARTEAK sustatzen duen “*DONEZTEBE-ELIZONDO TARTEAN BIZIKLETENTZAKO ETA OINEZKOENTZAKO BIDE-TARTEA (BIDASOAKO BIDE BERDEA) EGOKITZEKO OBRAK*” egitea Doneztebe, Bertizarana eta Baztango udalerrietan (Nafarroa).

Obrak honako ohar hauen arabera egin beharko dira:

1.- KREAN KOOP. ELK. ingeniari-estudioa 24967 elkargokide-zenbakidun Juan Carlos Ovalle Cortisoz jaunak, bide, ubide eta portu ingeniariak, 2024ko uztailaren 12an idatzi zuen **proiektu teknikoaren** edukiarekin eta **Administrazio Klausulen Agiri** honetan eta **Baldintza Teknikoen Agirian** jasotako aginduekin bat etorritik; hori guztia, Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeko (aurrerantz, KPFL) V. kapituluaren 2. atalean xedatutakoaren arabera.

2.- Orobat, **obra-zuzendaritzak**, alegia Juan Carlos Ovalle Cortisoz jaunak, bide, ubide eta portuetako ingeniariak eta, hala badagokio, aipatutako ingeniari-estudioak horretarako izenda dezakeen teknikariak **emandako aginduak** bete beharko dira, lanak egiteko moduari dagokionez.

3.- Halaber, **jarraian zerrendatu diren txosten/baimenetan jasotako oharak** bete beharko dira:

3.1 “*Endarlatsa-Doneztebe tartean garai bateko Bidasoako trenbidearen trazadura bide berde gisa erabiltzeko egokitzea*” izeneko **Udalez Gaindikoa Proiektu Sektoriala (UGPS) aldatzeko** dokumentuan

jasotzen direnak, hirigintza-araudia egokitzeari eta Cederna Garalur Elkartek sustatzen duen Doneztebe-Elizondo tartearen sartzeari dagokienez. Agiri hori Nafarroako Gobernuaren Erabakiaren bidez onartu zen (2024ko ekainaren 5a), eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2024ko ekainaren 21ean (128. zk.).

3.2 Nafarroako Gobernu Ingurumeneko zuzendari nagusiak abenduaren 18an emandako **1086E/2023 Ebazpenean** jasotakoak. Ebazpen horren bidez, Cederna Garalur Elkartek Doneztebe, Bertizarana eta Baztanerako sustatutako *“Doneztebe-Elizondo tartearekin Bidasoako Bide Berdearen ibilbidea luzatzeari dagokionez, Bidasoako Bide Berdea egokitzeko Udalez Gaindiko Proiektu Sektoriala (UGPS) aldatzea”* izenekoaren **ingurumen-inpaktuaren txostena** formulatzen da.

3.3 UGPSa aldatzeko espediente horretan jasota dauden **txosten sektorialak**. Hauek dira:

- Nafarroako Gobernu Ingurumeneko Departamentuko Herri Lanetako Zuzendaritza Nagusiaren txostena, 2013ko apirilaren 2koa.

- Nafarroako Gobernu Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko Habitaten Atalaren txostena, 2015eko otsailaren 10ekoa.

- Nafarroako Gobernu Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko Lurralde eta Paisaia Zerbitzuaren txostena, 2019ko uztailaren 3koa.

- Nafarroako Gobernu Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko Eskualde Atlantikoko Atalaren txostena, 2019ko irailaren 24koa.

- Nafarroako Gobernu Garapen Ekonomiko eta Enpresariako Departamentuko Turismoa Antolatu eta Sustatzeko Zerbitzuarena, 2022ko urtarilaren 3koa.

- Nafarroako Gobernu Kultura eta Kirol Departamentuko Ondare Arkitektonikoaren Atalaren txostena, 2022ko urtarilaren 14koa.

- Nafarroako Gobernu Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza Nagusiko Herri-lurren Atalaren txostena, 2022ko otsailaren 8koa.

- Nafarroako Gobernu Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzuaren txostena, 2022ko apirilaren 8koa.

- Nafarroako Gobernu Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiko Lurralde Plangintzaren eta Parte-hartzearen Atalaren txostena, 2022ko maiatzaren 6koa.

- CHC - Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren txostena (ICA/31/20210040 espedientea), 2022ko irailaren 20koa.

- Nafarroako Gobernu Lurralde Kohesiorako Departamentuko Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren txostena, 2023ko martxoaren 24koa.

- Nafarroako Gobernu Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko Naturaguneen eta Espezie Babestuen Atalaren eta Ibai Ingurunearen Atalaren txostena, 2023ko uztailaren 3koa.

.- Nafarroako Gobernuako Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko Ingurumen Ebaluazioaren Atalaren txostena, 2024ko apirilaren 19koa.

3.4 Baztango Udalaren Osoko Bilkuraren **Akordioa**, 2024ko uztailaren 23koa, eta Baztango Udalaren hirigintza-zerbitzuen **Txostena**, 2024ko uztailailekoa.

3.5 Bertizaranako Udalaren Osoko Bilkuraren **Akordioa**, 2024ko uztailaren 9koa, eta Bertizaranako Udalaren hirigintza-zerbitzuen **Txostena**, 2024ko abuztuaren 8koa.

3.6 Doneztebeko Udalaren Osoko Bilkuraren **Akordioa**, 2024ko uztailaren 29koa, eta Doneztebeko Udalaren hirigintza-zerbitzuen **Txostena**, 2024ko uztailaren 22koa.

3.7 2024ko uztailan Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoari, Nafarroako Gobernuako Herri Lan Departamentuari eta Ingurumen Departamentuari eskatu zaizkien obrak hasi aurretiko behin betiko txostenak/baimenak (batzuk oraindik jasotzeke daude).

.- 338E/2024 EBAZPENA, urriaren 9koa, Herri Lan eta Azpiegituren zuzendari nagusiak emana, Cederna Garalur Elkarteari "Bidasoako bide berdea, Doneztebe-Elizondo tartean, egokitze udalez gaindiko proiektu sektorialean" jasotako obrak egiteko baimena ematen diona (0001-EXP1-2024-000362 espedienteak).

Erakunde lizitatzailen proposamenak Baldintza Teknikoen Agirian eta aplikatu beharreko araudian zehazten diren hirigintza-baldintzetara egokituko dira.

Proiektu hau Europar Batasunak finantzatzen duen 'Next GenerationEU' - Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barnean sartzen da.

Proiektu hau Baztan-Bidasoako helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planean sartzen da, eta 2. ardatzeko ("Energia-efizientzia hobetzea") eta 4. jarduketako ("Bizikletentzako eta oinezkoentzako Doneztebe-Elizondo bide-zatia egokitzea") zati da. Ekintza horren izenburua da: "Bideak eta bide-zoruak egokitzea, bide-seinaleak eta informazio-seinaleak jartzea, bizikletentzako eta oinezkoentzako bide-zatian hiri-altzariak jartzea".

Definitutako kontratuaren kalifikazioa **obren kontratu administratiboa** da, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeko (aurrerantzean KPFL) 28. eta 34. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Kontratu hau lote bakar batean esleitzen da, justifikazio honen arabera:

Kontratuaren xedek barne hartzen dituen prestazioak modu independentean gauzatzeak zaildu egin dezake kontratua behar bezala gauzatzea ikuspegi teknikoetik; edo xedearen izaerak berekin ekar dezake prestazioak koordinatu beharra. Lanak ingurune fisiko berean egingen dira (Doneztebe eta Elizondo arteko trenbidearen garai bateko trazadura). Obren barnean obra-materialak metatzea, pertsonen eta ibilgailuen zirkulazioa eta bestelakoak sartzen dira, eta, beraz, guztiz inkoherentea da eta ez da batere eraginkorra lan zehatz bakoitza enpresa edo profesional desberdinei banan-banan enkargatzea.

Administrazioak berak halako kontratuak lotetan kontratatzeke dituen baliabideak ez lirateke nahikoak izanzen, esku hartzen duten eragileen kopuruari eta Udalaren langileek lituzketen mugei erreparatuta; horrek proiektuaren gainkostua ekarriko luke.

Azaldutako guztiagatik, teknikoki justifikatuta dago kontratu hau lotetan ez banatzea.

Kontratu hau kode hauei dagokie: 45233160-8 Bideak eta beste gainazal harriztatu batzuk, 45111220-6 Sastrakak kentzeko lanak, 45111230- Lurra egonkortzeko lanak, 45111213-4 Lur-eremua garbitzeko lanak, 45111200-0 Lur-eremua berdintzeko eta garbitzeko lanak, 45112400-9 Hondeaketa-lanak, 45233294-6 Bide-seinaleak jartzea, 45442100-8 Pintura-lanak, eta 45213316 Europako Batzordearen Kontratueterako Hiztegi Batua (CPV) nomenklaturako pasabideak instalatzeko lanak.

Kontratua finantzatzeko, "Europar Batasunak finantzatzen duen 'Next GenerationEU' - Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren" laguntzak eman direnez, kontratatari egotz dakioken arrazoiaren batengatik laguntza horiek galdu beharko lirakekeela zehazten bada, egoera hori kontratua suntsiarazteko arrazoia izanen da, eta xedatzen da kontratatari erakunde kontratatzaileari, CEDERNA GARALUR Elkarteari hain zuzen ere, kalte-ordaina eman beharko diola, dirulaguntzaren itzulketa osoari edo zati bati dagokion zenbateko berdinean.

BIGARREN KLAUSULA. - ESLEIPEN-PROZEDURA.

Baldintza-agiri honen xede den kontratazioa **'ERKIDEGOAREN ATALASETIK BEHERAKO PROZEDURA IREKIA'**ren bidez esleituko da, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean (aurrerantzean, KPFL) xedatutakoaren arabera, eta **IZAPIDETZE ARRUNTAREN moduari jarraiki**.

HIRUGARREN KLAUSULA. - KONTRATATZAILEAREN PROFILA.

EFPLaren 88. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, kontratu honi buruzko informazio guztia Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratuko da.

LAUGARREN KLAUSULA. - LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA.

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua **MILIOI BAT, BERREHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO ETA LAUROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (1.299.999,99 €)** izanen da, gehi dagokion BEZa, alegia, MILIOI BAT, BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO ETA LAUROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (1.572.999,99 €), BEZa barne.

Kontratuaren balio zenbatetsia, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeko (aurrerantzean KPFL) 42. artikuluan aurreikusitakoaren arabera kalkulatua, **MILIOI BAT, BERREHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO ETA LAUROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (1.299.999,99 €)** da, gehi dagokion BEZa, alegia, MILIOI BAT, BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO ETA LAUROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (1.572.999,99 €), BEZa barne.

Lizitatzailerik egoki irizitako zenbatekoan murriztu dezakete aurrekontua (baina baldintza-agiri honen 12. klausulan ezarritako mugarekin). Ezin izanen da, inola ere, lizitazio-aurrekontua gainditu.

Obren azken kostua alde batera utzita, erakunde esleipendunak eskainiko duen prezioa prezio egiazko eta behin betikotzat hartuko da, eta, ondorioz, ez da inolako aldaketarik izanen, obrak gauzatzeko prezioak edo epeak edo proiektuan edo obran sar edo egin daitezkeen aldaketek izan ditzaketen bariazioen ondorioz.

BOSGARREN KLAUSULA. – ERAKUNDE KONTRATATZAILEA, KONTRATAZIO-ORGANOA ETA KREDITUA EGOTEA.

Erakunde kontratatzailea **CEDERNA GARALUR Elkarte** da (IFK: G-31372063; helbidea: Berriobide kalea 40, 001 bulegoa - 31013 Antsoain, Nafarroa). Posta elektronikoa: info@cederna.es.

Kontratazio-organoa, erakunde kontratatzailearen estatutuek jasotakoaren arabera, elkarte horren **Zuzendaritza Batzordea** da, eta **Kudeaketa Unitatea**, berriz, **elkarte horren beraren Gerentziako Zuzendaritza**.

Kreditu egokia eta nahikoa dago erakunde kontratatzaile CEDERNA GARALUR Elkartearen gastu-partidan, gauzatu nahi den gastua finantzatzeko.

SEIGARREN KLAUSULA. - PREZIOAK BERRIKUSTEA.

KPFLko 109. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratu honetan ez daitezke prezioak berrikusi.

ZAZPIGARREN KLAUSULA. – KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA ETA GAUZATZEKO LEKUA.

Obrek erabat amaituta egon beharko dute eta erakunde kontratatzaileari entregatuko zaizkio zuinketa egiaztatzeko eta obra hasteko akta sinatzen denetik **ZORTZI HILABETEKO** epean.

Zuinketa egiaztatzeko akta formalizatu eta hurrengo egunean hasiko da egikaritze-epea (KPFLko 167. artikulua); kontratua formalizatu eta 10 eguneko epean egin beharko da.

Hala ere, lehen aipatutako baimenetako batek muga edo aldi baterako debekua ezartzen badu bide zati/gune/lursail batean edo batzuetan urteko sasoi batzuetan lanen bat egiteko, aldi horiek eten egingen dute obra amaitzeko guztizko epearen zenbaketa, eragindako lanei dagokienez.

Era berean, desjabetze-espeditentia amaitu ez eta oraindik esku hartzeko prest ez dauden bide zatiak/guneak/lursailak baldin badaude, obra amaitzeko guztizko epearen zenbaketa eten egingen da, horietan egin beharreko lanei dagokienez.

Zuinketa egiaztatzeko akta erakunde kontratatzaileak eta kontratistak/esleipendunak adostutako datan sinatuko da, betiere arestian adierazitakoaren arabera.

Epe hori eten ahal izanen da obraren zati edo atal batzuen kasuan, baldin eta erakunde eta agintaritza eskudunek ezarritako jarraibide teknikoek eta ingurumenekoek hala ezartzen badute (erakunde informatzaileak espediente honetan: “*Endarlatsa-Donztebe tartean Bidasoako trenbidearen garai bateko trazadura egokitzea, bide berde gisa erabiltzeko*” izeneko udalez gaindiko proiektu sektoriala aldatzea, hirigintza-araudia egokitzeari eta Donztebe-Elizondo tartea sartzeari dagokienez”).

Kontratista/esleipenduna, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, epe osoa edo epe partzialak betetzeari dagokionez berandutu egin bada, erakunde kontratatzaileak aukera izanen du, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, kontratua suntsiarazteko edo eguneko zehapenak ezartzeko, esleipen-zenbatekoaren 1.000 euro bakoitzeko 0,40 euroko proportzioan (KPFLko 147.3 artikulua), eta ez du baztertuko erakunde kontratatzaileari ordain diezaiokeen balizko kalte-ordaina; horiek modu independentean zehaztu beharko dira (KPFLko 148. artikulua).

Halaber, kontratua hastean edo amaitzean kontratistari/esleipendunari egotz dakiokkeen atzerapenagatik, “Next GenerationEU - Europar Batasunak finantzaturako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko laguntzak” galduko balira, osorik edo zati batean, kontratista horrek Cederna Garalur Elkarteari kalte-ordaina eman beharko dio, laguntza osorik edo zati batean itzuli izanaren zenbateko berean.

Obrak Doneztebe, Bertizarana eta Baztango udal-barrutietan egingen dira, eta, bereziki, Bidasoako trenbidearen garai bateko trazaduran, Doneztebe-Elizondo tartean.

ZORTZIGARREN KLAUSULA. - KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA EGIAZTATZEA.

Lizitazio honetan parte hartu ahal izanen dute: pertsona naturalek edo juridikoek (espainiarrak nahiz atzerritarrek), jarduteko gaitasun osoa badute; Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean ezarritakoaren arabera, kontratatzeke debeku- edo bateraezintasun-arrazoiaren batean sartuta ez daudene; interes-gatazkako egoeran ez daudene; eta kontratua gauzatzeko behar adinako kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen dutene.

Pertsona juridikoak beren estatutuen edo jarduera-arauen arabera berezkoak dituzten helburuen, xedearen eta jarduera-eremuaren barnean sartzen diren prestazioak dituzten kontratuen esleipendunak izan ahalko dira soilik.

Kontratua egiteko, **kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa** justifikatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

.- Kontratuaren xede diren jardueren esparruan sartzen diren **negozioen bolumenari buruzko adierazpena**, gehienez ere eskuragarri dauden azken hiru ekitaldiei buruzkoa, esleipendunaren sorrera-dataren edo jardueren hasiera-dataren arabera. Horrela, urte bakoitzeko negozioen bolumena 2.062.499 eurokoa edo handiagoa izan beharko da, BEZik gabe.

Kaudimen teknikoa justifikatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

.- Azken 5 urteetan, **ezaugarri bereko obra bat**, gutxienez, **egin izana** (pasabideak edo zubiak dituzten bideak edo errepideak) baldintza egokietan, kontratazio honen lizitazioaren oinarritzko prezioaren % 80ko edo handiagoko zenbatekoarekin.

.- **Behar bezala gaitutako profesional bat** obrara atxikitzea. Profesional horrek behar adinako titulazioa eta esperientzia izan beharko ditu (gutxienez 5 urte).

.- Lizitatzailerak obra egiteko dituen makinen, materialen, gainerako ekipo teknikoaren eta plantillaren **zerrenda**.

.- **Azpiktratatisten zerrenda**.

Kaudimena azpikontratazioaren bidez egiaztatuz gero, lizitatzailerak agiri bat aurkeztu beharko du azpikontratatistekin kontratua gauzatzeko konpromiso formala duela egiaztatzeko; kasu horretan, horien guztien kaudimena batuko da. Halaber, egiaztatu beharko du azpikontratatistek kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak dituztela.

BEDERATZIGARREN KLAUSULA.- ESKAINTZAK ETA ADMINISTRAZIO-AGIRIAK AURKEZTEA.

Erakunde interesdunen proposamenek baldintza-agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian aurreikusitakora egokitu beharko dute. Proposamenak aurkezteak esan nahi du erakunde eskatzaileak/interesdunak baldintzarik gabe onartzen dituela klausula guztien edukia, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe, KPFLko 53. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Erakunde lizitatzaille bakoitzak eskaintza bakarra aurkeztu ahal izanen du. Halaber, ezin izanen du beste erakunde lizitatzaille batzuekin batera parte hartzeko eskaintzarik izenpetu, banaka egin badu, ezta elkartze horietako batean baino gehiagotan agertu ere. Arau hori urratuz gero nahiz elkartutako enpresek eskaintzak aldi berean aurkeztuz gero, izenpetutako eskaintza bakar bat ere ez da onartuko.

Proposamenak aurkezteak esan nahi du erakunde lizitatzailleak baldintzarik gabe onartzen dituela kontratua arautzen duten baldintza-agirietan aurreikusitako klausula edo baldintza guztien edukia, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.

KPFLko 49.3 artikuluaaren arabera, lizitazioan interesa duten erakundeek baldintza-agiriei eta gainerako dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria eskuratuko dute Nafarroako Kontratazio Atariaren bidez, informazioa eskatzen dutenetik gehienez bost eguneko epean. Eskaintzak aurkezteko epearen azken 3 egunetan informazio-eskaera egiteak ez du epe hori luzatzera behartuko. Eskabideak info@cederna.es posta elektronikora bidaliko dira.

Aurkezteko epea Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratutako lizitazio-iragarkian ezarriko da. Lizitazio-iragarkiak, argitaratzen den egunetik aurrera, kontratazioa arautuko duten baldintza-agirietarako zuzeneko sarbide osoa emanen du, mugarik gabe.

Eskaintzak telematikoki aurkeztuko dira, Nafarroako Kontratazio Atariko Lizitazio Elektronikoko Plataformaren bidez (aurrerantzean NALEP). NALEP-erako sarbidea Kontratazio Atariak argitaratuko duen lizitazio-iragarkian egonen da eskuragarri, eta lizitatzen duenak nahitaez erabili beharko du, haren notatsun fisikoa edo juridikoa edozein dela ere.

Lizitazioan interesa duen edozein pertsona/entitatek jaitsi ahal izanen du eskaintzak prestatzeko eta aurkezteko aukera ematen duen mahaigaineko aplikazioa, enkriptatzeko mekanismo estandarrek erabiliz, gutun-azal digitalaren bidez, eta gordailu seguruan gordailatuz. Deskargatu ondoren, aplikazioak NALEP-*en* bidez eginen den ondorengo edozein lizitaziorako balioko du.

Lizitazio Elektronikoko Plataforman, abian den lizitazioari dagokion dokumentazio guztia aurkeztuko da ireki arteko konfidentzialtasun-bermearekin; kontratazio-organoarekin harremanetan jarriko da, Kontratazio Mahaiak egindako eskaintzaren inguruan eskatzen ahal dizkion zuzenketak edo argibideak egiteko; kontratazio publikoaren ondorio guztietarako, erakunde kontratatzailearen, Cederna Garalur Elkartearen, egoitza elektronikoa eta erregistro laguntzaile gisa eratu da. Hortaz, eskaintzak aurkeztu ondorengo komunikazio guztiak eta lizitazioaren gainerako jarduketak eta izapide guztiak NALEP-*en* bidez eginen dira.

A).- Eskaintzak aurkezteko modua:

Erakunde lizitatzailleek, eskaintzak aurkezteko NALEP-*ek* beharko dituen izapideak eta formularioak bete beharko dituzte, dagokion aplikazioa erabilita.

Eskaintzak aurkeztuko eta/edo sinatuko dituzten pertsona fisikoek behar bezala identifikatuta egon beharko dute, eta, ordezkari sinatzaileen kasuan, Lizitazio Elektronikoen Plataforman jarduteko eta operatzeko baimena ematen dien ahalmen nahikoa izan beharko dute.

Erakunde lizitatzailerak bere eskaintza ixten duen unean, eskaintzaren edukiaren azterna bat -laburpen kriptografikoa- sortuko da. Eskaintza NALEPen aurkeztean akatsen bat gertatzen bada, eta azterna – laburpen kriptografikoa- ezarritako harremanetarako helbidera posta elektronikoz bidali bada (eskaintzak aurkezteko epearen barnean), 24 orduz luzatuko da epea eskaintza osoa NALEPen bidez jasotzeko eta aurkeztu izana osatutzat jo ahal izateko.

Intereseko esteka erantsi da: <https://portalcontratacion.navarra.es/es/quiero-presentar-una-oferta-electronica>

'A' gutun-azala irekitzeko ekitaldian epez kanpo aurkeztutako eskaintza bat antzematen bada, eta eskaintza horretarako azterna jaso bada, aurkeztea baliozkotzat hartuko da, baldin eta azterna bat badator eta jaso izana 24 orduko epe luzatuaren barnean egin bazen. Halakoetan, eskaintza baliozkotzat hartuko da eta gutun-azala irekiko da. Bestela, enpresa lizitaziotik kanpo utziko da eta ez dira bere eskaintzaren gutun-azalak irekiko.

Eskaintza epez kanpo aurkeztu bada eta erakunde lizitatzailerak NALEPen bidez aurkezterakoan arazo teknikoak egon direla argudiatzen badu, egiaztatuko da eskaintza aurkezteko unean egon ote ziren alegatutako arazo teknikoak. Plataformaren funtzionamendu normalean gorabehera teknikoren bat gertatu izan bada soilik onartuko da eskaintza. Erakunde lizitatzailerak ez ezagutzeak edo NALEPekin zerikusirik ez duten arazo teknikoek ez dute justifikatuko eskaintza epez kanpo aurkeztu izana, eta lizitazio-prozeduratik kanpo uztea eraginen dute.

Eskaintzak sinadura elektronikoa aitortuko sistema bidez sinatuta egon beharko du, ziurtapen-zerbitzuen emaile batek baliozkotasunez emana, eta eskaintzaren nortasuna eta osotasuna eta eskaintzari lotutako dokumentu guztiak bermatuko ditu, Sinadura Elektronikoa buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legean eta kontratazio publiko elektronikoa buruzko gainerako xedapenetan xedatutakoaren arabera.

Eskatutako dokumentazio guztia erakunde lizitatzaileraren ordezkariak sinatu beharko du digitalki, ahal dela pdf formatuan.

Digitalizatu beharko den paperezko dokumentazioaren kasuan, dokumentazio horren jatorrizkoarekiko leialtasuna ordezkariak kopia elektronikoki sinatuta bermatuko da, ahal dela pdf formatuan; sinatzaileak bere gain hartuko du kopian aurkeztutako dokumentazioa egiazkoa izatearen erantzukizuna.

Aurrekoa gorabehera, Kontratazio Mahaiak kopia digitalizatuen edukia alderatzea eskatu ahal izanen du, eta kopiaren xede den dokumentua erakusteko eskatu ahal izanen dio lizitatzailari (dokumentu horrek jatorrizkoa edo kopia autentikoa izan beharko du indarrean dagoen legeriaren arabera).

Eskaintza elektronikoa erantsiko den fitxategi indibidual bakoitzak gehienez 50 MBko tamaina izanen du. Eskaintzaren tamaina osoa, eskaintza osatzen duten dokumentu guztiekin, gehienez ere 100 MBkoa izanen da. NALEPek ez du inolako mugarik jartzen eskaintza bati erants dakizkiokeen fitxategi-kopuruan.

PDFaz gain, NALEPek eskaintzari erantsiko zaizkion dokumentuetarako erabili ohi diren beste formatu batzuk ere onartzen ditu (doc, docx, xls,lsx, ppt, pptx, rtf, sxw, abw, jpg, bmp, tiff, tif, odt, ods, odp, odi, dwg, zip). Beste formatu batzuetako fitxategiak fitxategi konprimatu (zip) batean sartuta erantsi ahal izanen dira.

Aurkeztutako irudi elektronikoez ez dute kopia ziurtatuaren izaera edukiko. Elkarrengarritasunaren Eskema Nazionalan prozesu horietarako onartutako formatuak eta estandarrak bete beharko dituzte.

Lizitazio-plataformaren formularioetan sartutako balio objektiboak eta irizpide bakoitza euskarritu duten dokumentu erantsiak bat ez badatoz, erakunde lizitatzaillearen ordezkariak elektronikoki sinatutako dokumentuak eta eranskinak gailenduko dira.

Erakunde lizitatzailleek neurri egokiak hartu beharko dituzte proposamenen sekretua bermatzeko, gutun-azaletara sartu aurretik gutun-azalen edukia ezagut ez dadin; bestela, lizitaziotik kanpo geratuko dira automatikoki. Horrela, 'A' eta 'B' gutun-azalean eskaintza ekonomikoari edo formula bidez kuantifika daitezkeen irizpideei edozein erreferentzia egiten bazaie, horrek berarekin ekarriko du proposamena ez onartzea eta lizitazio-prozeduratik kanpo geratzea.

B).- Eskaintzak aurkezteko epea:

Lizitazio honetan, epea Nafarroako Kontratazio Atariaren lizitazio-iragarkian adierazitakoa izanen da. Epe hori ez da 15 egun naturalek beherakoa izanen, argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

PROPOSAMENEN EDUKIA.

Proposamenak Lizitazio Elektronikoen Plataforman kasu bakoitzean egiten den gutun-azalen konfigurazioaren arabera aurkeztuko dira, eta gehienez ere hiru gutun-azal/artxibo elektronikotan eskatu ahal izanen da dokumentazioa aurkeztea, honako eduki honekin:

1).- 'A' gutun-azala (administrazio-dokumentazioa), erakunde lizitatzaillearen inguruko dokumentazioari buruzkoa:

a).- Parte hartzeko eskabide-idazkiak aurkeztuko den erakunde lizitatzaillearen identifikazioa jasoko du, eta berariaz jasoko ditu posta-helbide bat, telefono-zenbaki bat eta posta elektronikoko helbide bat, bitarteko telematikoen bidezko komunikazioetarako eta jakinarazpenetarako, kontratazio publikoaren arloan erreklamazioak egin behar badira, baldintza-agiri honen **I. eranskinaren** arabera.

Erakunde lizitatzaillearen erantzukizunpeko adierazpena, baldintza-agiri honekin batera doan **II. eranskineko** ereduaren arabera. Adieraziko da betetzen dituela kontratatze eskatzen diren baldintzak (Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeko 55. artikuluan eskatutakoak), baita kaudimen ekonomikoaren eta finantzarioaren irizpideak eta baldintza-agiri honetan jasotzen diren irizpide teknikoak eta profesionalak ere.

Esleipen-proposamena jasoko duen erakunde lizitatzaileri bakarrik eskatuko zaio KPFLko 55.8 artikuluan adierazitako dokumentazioa (eskatzen zaionetik gehienez ere 7 egun naturaleko epean aurkeztu beharrekoa), baldintza-agiri honen 8. klausulan jasotakoa, alegia.

b).- Proposamena batera edo aldi baterako enpresa-elkarte batean parte hartzen duten erakunde lizitatzailleek sinatzen badute, haietako bakoitzak a) letrako dokumentazioa sinatu beharko du, eta agiri pribatu bat erantsiko da. Agiri horretan adieraziko dira elkarrekin lehiatzeko borondatea, erakunde bakoitzari dagokion partaidetza-ehunekoa, eta kontratutik eratorritako eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalmena izanen duen ordezkari edo ahalduen bakar bat izendatuko da, jardunean kontratua iraungi arte. Parte hartuko duten enpresek eta ahalduen sinatu beharko dute dokumentua.

c).- Kaudimen tekniko edo ekonomiko azpikontratazioaren bidez egiaztatzen bada, edo kaudimen tekniko egiaztatzen bada kontratuaren parteak adierazita lizitatzailleak bere burua azpikontratutako

duela, aurreko ataletan eskatzen den dokumentazioa lizitaziora eta/edo kontratua gauzatzera aurkeztu diren lizitatzailerak guztiek aurkeztu beharko dute. Horrez gain, erakunde lizitatzailerak, bere erantzukizunpeko adierazpenean, pertsona/erakunde azpikontratisten zerrenda jasoko du, eta Kontratazio Mahaiak eskatzen dionean egiaztatu ahal izan beharko du, esleipen-proposamena egin aurretik, azpikontratistek badituztela kontratua gauzatzeko behar diren baliabideak, eta baduela dokumentu bat zeinak egiaztatuko baitu konpromiso formala duela enpresa azpikontratista, kontratua gauzatzeko, konprometitzeko gaitasuna duten pertsonekin.

d).- **IV. eranskina.** Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko (SEEP) jarduketak gauzatzeari buruzko adierazpenak dokumentu bakar batean (interes-gatazkarik ezaren adierazpena. Datuak lagatzeko eta tratatzeko adierazpena. Zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoaren adierazpena. Sei ingurumen-helburuei kalte esanguratsurik ez egiteko printzipioa betetzeari buruzko adierazpena -DNSH-. Iruzurraren aurkako borrokari buruzko adierazpena -OLAF-).

2).- 'B' gutun-azala (formula bidez balora EZ daitezkeen irizpideak), balio-judizioen mende jarritako irizpideei buruzkoa.

KPFLko 97. artikulua arabera, erakunde lizitatzailerak irizpide kualitatiboak baloratzeko eta puntuatzeko ekarriko dituen agiri teknikoak (formula matematikoen bidez balora ez daitezkeenak) 'B' artxihoan/gutun-azalean aurkeztuko dira.

Dokumentazioak egoki azaldu beharko ditu kontratua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren prestazio guztiak, BALIO-JUDIZIOAREN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI buruzko atalean aurreikusitakoak.

Berariaz aurreikusten da lizitaziotik kanpo uzteko arrazoi gisa 'B' gutun-azalean sartzea 'C' gutun-azalean baloratutako dokumentuak eta elementuak, funtsezkoa baita formulak aplikatuz besterik gabe kuantifika daitezkeen eskaintzen berdintasuna eta diskriminaziorik eza, gardentasuna eta objektibotasuna eta konfidentziasuna bermatzeko, KPFLko 97. artikuluan xedatutakoaren arabera gutun-azala ireki arte.

Horretarako, **memoria tekniko** bat aurkeztu beharko dute, **honako atal hauek izanen dituen**:

1.- Proiektuaren analisia.

2.- Lan-programa.

Memoriak, gehienez ere, din A4 tamainako 15 orrialde izanen ditu, formatu honetara egokituta: letra-mota: Arial; letraren tamaina: 11 puntu; gutxieneko marjinak: 2,0 cm; lerroarteak: bakuna.

3).- 'C' gutun-azala (formula bidez BAI balora daitezkeen irizpideak), formulak aplikatze hutsaren mende dauden irizpideei buruzkoa.

Erakunde lizitatzailerak bakoitzak eskaintza ekonomikoa eta formulen bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideei buruzkoa jasoko ditu, eta horiek **III. eranskinean** jasoko den ereduaren arabera aurkeztu beharko dira.

Erakunde lizitatzailerak eginen duen eskaintza ekonomikoan BEZa sartuta dagoela ulertuko da, nahiz eta zerga hori partida independente gisa adierazi beharko den. Erakunde lizitatzailerak BEZa ordaintzetik salbuetsita badago, halaxe adierazi beharko du eskaintzan eta egiaztatu egin beharko du.

Ez da ekonomia-eskaintzarik onartuko baldin eta omisioak, akatsak edo zirriborroak baditu eta, ondorioz, argi eta garbi jakiterik ez badago erakunde kontratatzaileak, Cederna Garalur Elkarteak, eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat hartuko duena. Akats material edo aritmetiko baten ondorioz, letraz eta zifraz

adierazitako kopuruak bat ez badatoz, eta eskaintza bikoitzaren konkurrentzia interpretatu ahal izatea saihesteko, Kontratazio Mahaiak baliozko eskaintza ekonomikoa letraz adierazitakoa dela ulertuko du.

Eskaintza ekonomikoak behar bestekoa izan beharko du, erakunde esleipendunak dagokion sektoreko hitzarmena aplikatzearen ondoriozko kostuari aurre egin ahal izateko, gutxienez. Horrez gain, aurreikusitako soldaten orduko prezioak ez daitezke izan orduko prezioak, gehi aplikatzekoa den sektoreko hitzarmenaren orduko prezio-hobekuntzak gehi Gizarte Segurantzako kostuak baino txikiagoak.

Eskaintzak lizitaziotik kanpo geratuko dira irizpide kualitatiboekin egindako eskaintzetan formula matematikoen bidez kalkulaturako eskaintzak sartuz gero; izan ere, funtsezkoa da eskaintza horiek isilpean gordeko direla ziurtatzea, eskaintzak jendaurrean ireki arte, KPFLko 97. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontratuaren aurrekontua gainditzea ere eskaintza lizitaziotik kanpo geratzea ekarriko du.

Lizitazileak edo haren ordezkariak sinatu beharko du proposamena. Baterako partaidetza duten erakunde lizitazileen kasuan, kide guztiek edo haien ordezkariak sinatuko dute.

HAMARGARREN KLAUSULA. - ESLEIPEN-IRIZPIDEAK.

Proposamenak balioesteko eta eskaintzarik onena zein den zehazteko, hainbat esleipen-irizpide hartuko dira kontuan, kalitate-prezio erlazio onenean oinarrituta. Proposamen bakoitzak, bere osotasunean, gehienez **EHUN (100) PUNTU** jasoko ditu, honako irizpide hauen arabera:

10.1 Formula bidez balora EZ daitezkeen irizpideak: gehienez 40 puntu.

Atal honetako puntuazioa emateko, honako hauek baloratuko dira:

Memoria teknikoa: gehienez 40 puntu.

Jarraian adierazten diren alderdiak baloratuko dira, horien balorazio partzialarekin, honakoaren arabera:

1.- Proiektuaren analisisa: 0 eta 25 puntu bitartean baloratuko da.

- Neurketak eta dimentsioak egiaztatzea, baita balizko zehaztugabetasunak eta horien ondorioak ere: 0 eta 5 puntu bitartean baloratuko da.

- Obra-faseko eduki-inpaktuen analisisa; ingurumenekoak zein gizarte-arlokoak. Prebentzioaren eta eraikuntzaren eta/edo erredundanteen arloko konpromiso gehigarriak. Zerbitzuan jartzea eta probak: 0 eta 5 puntu bitartean baloratuko da.

- Aurreikusitako eraikuntza-metodoak eta horien fidagarritasun- eta berme-maila deskribatzea, gauzatze-kalitateari, epeak betetzeari eta langileen segurtasunari dagokienez. Obra ezagutzea. Obrako interferentziak eta gauzatutako obraren amaierak. Afekzioen jarraipena, kontrola eta horiek konpontzea (mota guztietako zerbitzuak eta instalazioak, obrarako sarbideak, partikularrentzako sarbideak eta abar): 0 eta 10 puntu bitartean baloratuko da.

-Materialak hornitzea, hornitzaileen konpromisoa, pilaketak, maileguak, hondakinak kudeatzea eta obra-instalazioak: 0 eta 5 puntu bitartean baloratuko da.

2.- Lan-programa: 0 eta 15 puntu bitartean baloratuko da.

- Obraren antolaketa-plana: 0 eta 10 puntu bitartean baloratuko da.

Barne hartuko ditu obra hasi aurreko lanen analisisa, seinaleztapena eta balizamendua, eta obra gauzatu bitartean hartu beharreko segurtasun-neurriak (bai obrako langileentzat, bai gainerako langileentzat), datuak eta neurriak tokian bertan hartzeko bitartekoak eta baliabideak, eta obraren antolamenduaren

deskribapena, kokapena, makinaren kokapena eta pilaketa-eremuak eta bestelakoak kontuan hartuta.

- Garatu beharreko lanen programazioa eta obra gauzatzeko denboraren garapena aztertuko duen lan-programa, afekzioei dagokienez, proposatutako egikaritze-epearekin bat datorrena: 0 eta 5 puntu bitartean baloratuko da.

KPFLko 64.4 artikulua arabera, hautaketa-prozesuan jarraitzeko eta balorazio globalean onartua izateko, eskatuko da haztapena balio-judizioen mende duten irizpideetan lizitatzailerik gutxienezko puntuazio-atalase bat lortzea, halako moldez non Kontratazio Mahaiak ez ditzan kontuan hartu irizpide horien arabera guztira lor daitezkeen gehieneko puntuen % 50era iristen ez diren eskaintzak (alegia, 20 puntu).

10.2 Formula bidez BAI balora daitezkeen irizpideak: gehienez 60 puntu.

10.2.1 Eskaintza ekonomikoa: gehienez 50 puntu.

Ezin izanen da ezarritako tasarekiko gorako eskaintzarik egin, eta, hortaz, prozeduratik kanpo geratuko dira lizitazio-zenbatekotik gorako proposamen ekonomikoa duten eskaintzak.

Eskaintzarik merkeenari gehieneko puntuazioa emanen zaio.

Gehieneko puntuazioa emanen zaio eskaintza merkeenari; betiere, eskaintza hori anormalki baxua ez bada, aurrerago adierazitako irizpidearen arabera. Gainerako eskaintzak dagozkien zenbatekoen alderantzizko proportzioan puntuatuko dira, formula honen arabera:

Eskaintzarik merkeena: 50 puntu

Gainerako eskaintzak = $P_o \times 50/P_i$

(horretan, P_i lizitatzaileraren eskaintzaren prezioa da, eta P_o , berriz, eskaintzarik merkeenaren prezioa).

10.2.2 Gizarte-irizpideak: gehienez 10 puntu.

a).- Gizarte-irizpideak: gehienez 10 puntu.

a- 1).- Gizarte-alderdiak (1): Erakunde lizitatzailerik 4 puntu ere jaso dezakete baldin eta erakunde horiek kontratua gauzatzeko duten langileen artean gutxienez 8,00 orduko sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak egiteko konpromisoa hartzen badute, indarrean dagoen araudian eta dagokion hitzarmenean onartutako berdintasun- eta adiskidetze-arloko eskubideen inguruan. Irizpide horri buruzko dokumentazioa 'C' gutun-azalean erantsiko da.

a.-2).- Gizarte-alderdiak (2): Erakunde lizitatzailerik 6 puntu ere jaso dezakete baldin eta erakunde horiek kontratuaren esleipen-prezioaren ehuneko bat gizarteratzeko eta laneratzeko zentroen eta/edo enplegu-zentro berezien bidez azpikontratazeko konpromisoa hartzen badute.

2 puntu emanen zaizkio azpikontratazioa esleipen-prezioaren 100eko 5ean, gutxienez, eskaintzen duen lizitatzailerari; 4 puntu azpikontratazioa esleipen-prezioaren 100eko 10ean, gutxienez, eskaintzen duen lizitatzailerari; eta 6 puntu azpikontratazioa esleipen-prezioaren 100eko 15ean, gutxienez, eskaintzen duen lizitatzailerari. Irizpide horri buruzko dokumentazioa 'C' gutun-azalean erantsiko da.

HAMAIKAGARREN KLAUSULA. - ALDAGAIEN ONARGARRITASUNA.

Ez da onartuko aldagairik.

HAMABIGARREN KLAUSULA. - ESKAINTZA ANORMALKI BAXUAK.

Eskaintza bat anormalki baxua dela pentsa daiteke lizitazioaren oinarritzko prezioa baino % 20 handiagoa bada. Kasu horretan, KPFLko 98. artikuluan xedatutakoa beteko da.

Nolanahi ere, baztertu egingen dira eskaintzak baldin eta egiaztatzen bada azpikontratazioari buruzko araudia urratzeagatik anormalki baxuak direla edo ingurumen-, gizarte- eta lan-arloko nazio edo nazioarteko betebeharrak betetzen ez dituztela, indarrean dauden sektore-hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne.

HAMAHIRUGARREN KLAUSULA. - ESLEIPENERAKO LEHENTASUNAK BERDINKETA GERTATZEN BADA.

Bi eskaintzaren edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen bada, berdinketa hausteko irizpide horiek aplikatuko dira, hurrenkera honetan:

- a).- Genero-berdintasunaren arloan jardunbide egokiak egin direla egiaztatzea.
- b).- % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten langile finkoen ehuneko handiena duena, baldin eta enpresak edo profesionalak, kaudimena egiaztatzeko unean, plantillan, desgaitasuna duten langileen % 2tik gorako kopurua badu.
- c).- Laneratzeko enpresatzat hartua izana, laneratzeko enpresen araubidea arautzen duen abenduaren 13ko 44/2007 Legearen edo une horretan indarrean dagoen araudiaren arabera.
- d).- Behin-behineko langileen ehuneko kopuru txikiena, betiere % 10etik gorakoa ez bada.

Aurreko irizpideak aplikatu ondoren berdinketak jarraitzen badu, zozketa bidez ebaztiko da. Berdinketa hausteko irizpideak aplikatzeko, berdinduta dauden erakunde lizitatzailerei eskatuko zaie bost egun naturaleko epean dagokion dokumentazioa aurkez dezatela.

Atal honetan aipatutakoaren arabera, berdinketa hausteko irizpideen egiaztagiria berdinketa gertatzen duen unean, ez aurretik, aurkeztu beharko dute lizitatzailerek.

HAMALAU GARREN KLAUSULA. KONTRATAZIO-MAHAIA.

Kontratazio Mahaiak legeak agindutako proposamenak eta gainerako eginkizunak irekiko ditu, eta honako kide hauek osatuko dute:

Mahai-burua:

And. María Aranzazu Arregui Alberro andrea (NAN zk.: 72666411-G), Cederna Garalur Elkartearen lehendakaria edo haren ordezkoa, erakunde horren estatutuen arabera.

Mahaikideak:

Ibon Mimentza de Irala jauna, Cederna Garalur Elkarteko zuzendari kudeatzailea, edo Gerentziako Zuzendaritzak eginkizun edo zeregin horretarako berariaz izendatuko duen pertsona.

Juan Carlos Ovalle Cortisoz jauna (mahaikide teknikoa), 24967 elkargokide-zenbakiduna, KREAN KOOP. ELK. ingeniartza-estudiokoa, bide, ubide eta portu ingeniaria, Obren Proiektu Teknikoa idatzi duena eta Obra Zuzendaria, edo Ingeniartza Estudio horrek zeregin horretarako berariaz izendatutako teknikari bat, gaian aditua.

Santiago Sánchez Marquijano jauna (mahaikide teknikoa), 620 elkargokide-zenbakiduna, KREAN KOOP. ELK. ingeniartza-estudiokoa, Obren Proiektu Teknikoa idatzi duena eta Obra Zuzendaria, edo Ingeniartza Estudio horrek zeregin horretarako berariaz izendatutako teknikari bat, gaian aditua.

Gotzon Olarte Gorosabel jauna (mahaikide teknikoa), Baztango Udaleko udal-arkitektoa edo Gerentziako Zuzendaritzak eginkizun edo zeregin horretarako berariaz izendatutako pertsona.

Puy Goicoechea Chavarri andrea, Cederna Garalur Elkarteko kontrol ekonomikoaren/kontuen arduraduna, edo Gerentziako Zuzendaritzak eginkizun edo zeregin horretarako berariaz izendatutako pertsona.

Idazkaritza:

Alfonso Araujo Guardamino jauna, Cederna Garalur Elkarteko administrazio- eta finantza-arduraduna (AFA), Zuzenbidean lizentziaduna, IAETPko 1376 elkargokidea.

Eskaintzak baloratu aurretik, kontratazio-organoak, Zerga Administrazioako Estatu Agentzian (ZAEA) egoitza duen MINERVA tresna informatikoaren bidez, interes-gatazkaren inguruko *ex ante* aztertzeko prozedura hasiko du; alegia, pertsona fisiko edo juridiko lizitatzaileren eta eragiketaren organo erabakitzailearen datuak sartuko ditu.

ZAEAk kontsultaren xede den enpresaren benetako titulartasunei buruzko informazioak ez badu, eta kontratazio-organoari dagokion bandera beltzaren bidez hala adierazi badio, kontratazio-organoak benetako titulartasunari buruzko informazioa eskatuko die enpresa lizitatzailerei. Informazio hori 5 egun balioduneko epean aurkeztu beharko da, informazioa eskatzen denetik zenbatzen hasita. Eskatutako informazioa epe horretan ematen ez bada, enpresa lizitatzailera prozeduratik kanpo geratuko da.

Kontratazio-mahaiak, egintza pribatuan, lizitatzailerek 'A' gutun-azalean garaiz eta behar bezala aurkeztutako administrazio-agiriak kalifikatuko ditu aurrez, onartuak izateko baldintzak betetzen dituztela egiaztatze aldera.

Kontratazio Mahaiko kideek kontratuaren xede den gaian egokitzen jotzen dituzten profesionalen aholkularitza jaso ahal izanen dute, eta horretarako txostenak eta irizpenak egiteko eskatu ahal izanen dute.

Kontratazio Mahaiko kideak administrazio-prozedura arautzen duen legerian ezarritako abstentzio- eta errekusazio-arrazoien mende daude.

HAMABOSGARREN KLAUSULA. - PROPOSAMENAK IREKITZEA.

Barne-egintzan, Kontratazio Mahaiak egiaztatuko du parte hartzeko eskabide-idazkia aurkeztu dela, sinatuta eta osatuta, aurkeztuko den erakunde lizitatzailerekin. Berariaz jasoko dira, jakinarazpenetarako, posta-helbidea, telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa (I. eranskinaren arabera), eta erantzukizunpeko adierazpena (baldintza-agiri honi erantsitako II. eranskineko ereduaren arabera). KPFLko 51.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo zalantzaren bat sortzen badu, Kontratazio Mahaiak, beti tratu-berdintasunaren printzipioa errespetatuz, gutxienez bost egun naturaleko epea emanen du zuzendu ahal izateko; dokumentazioa elektronikoki aurkeztu beharko da. Dokumentazio horrek ezin izanen ditu, inola ere, eskaintzaren baldintzak aldatu.

Eskaintzak baloratu aurretik, kontratazio-organoak, Zerga Administrazioako Estatu Agentzian (ZAEA) egoitza duen MINERVA tresna informatikoaren bidez, interes-gatazkaren inguruko ex ante aztertzeko prozedura hasiko du; alegia, pertsona fisiko edo juridiko lizitatzaileren eta eragiketaren organo erabakitzaileen datuak sartuko ditu.

ZAEAk kontsultaren xede den enpresaren benetako titulartasunei buruzko informaziorik ez badu, eta kontratazio-organoari dagokion bandera beltzaren bidez hala adierazi badio, kontratazio-organoak benetako titulartasunari buruzko informazioa eskatuko die enpresa lizitatzailerei. Informazio hori 5 egun balioduneko epean aurkeztu beharko da, informazioa eskatzen denetik zenbatzen hasita. Eskatutako informazioa epe horretan ematen ez bada, enpresa lizitatzailera prozeduratik kanpo geratuko da.

Kontratazio-mahaiak, egintza pribatuan, lizitatzailerek 'A' gutun-azalean garaiz eta behar bezala aurkeztutako administrazio-agiriak kalifikatuko ditu aurrez, onartuak izateko baldintzak betetzen dituztela egiaztatze aldera.

Ondoren, Kontratazio Mahaiak onartutako lizitatzailerek 'B' gutun-azalean (formula bidez balora ez daitezkeen irizpideei buruzkoa) jasotako dokumentazioa ireki, aztertu eta baloratu du, irizpide-mota horretako puntuak emateko. Gutun-azalak, oro har, barne-egintzan eginen da.

Txosten horrek azalpenak emanda jaso beharko ditu puntuak esleipenean oinarrituta ebazpen-proposamen bat oinarritzeko arrazoiak.

Aurkeztutako eskaintzetako bat iluna edo zehaztugabea bada, Kontratazio Mahaiak, NALEP jakinarazpen-sistemaren bidez, azalpen osagarriak eskatu ahal izanen dizkio eskaintza aurkeztu duenari, eta gutxienez bost egun naturaleko epean eta gehienez hamar egun naturaleko epean aurkeztu beharko ditu, errekerimendua jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita. Ez da inola ere onartuko argibideak emateko aurkeztutako dokumentazioak aurkeztutako eskaintzaren esanahia aldatzea.

KPFLko 97. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, onargarria da teknikoki desegokiak diren edo kontratua behar bezala gauzatzea bermatzen ez duten eskaintzak baztertea.

Azkenik, eskaintza kualitatiboen balorazioa eginda, 'C' gutun-azala irekiko da eta horri dagozkion formulak aplikatze hutsarekin lotura duten irizpideak baloratuko dira. Gutun-azala irekitzeko ekitaldi publiko hori non eta zer ordutan eginen den iragarri beharko da Nafarroako Kontratazio Atarian, gutxienez 72 ordu lehenago. 'C' gutun-azalean jasotako dokumentazioa ireki ondoren, lizitatzaila bakoitzak formulen bidez balora ez daitezkeen irizpideen balorazioan ('B' gutun-azala) lortutako puntuazioa argitaratuko da.

KPFLko 59.2.e) eta 51.1.g) artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, Kontratazio Mahaiak kontratuaren esleipen-proposamena jasoko duen erakunde lizitatzaileri eskatuko dio kontratuaren esleipendun izateko

legez aurreikusitako dokumentazioa aurkez dezala, baldintza-agiri honen 17. klausulan jasotakoaren arabera.

Izapidetoki betetakoan, Kontratazio Mahaiak esleipen-proposamena eginen dio kontratazio-organoari. Proposamen horretan, erakunde lizitatzaileren zerrenda jasoko da, puntuazioaren arabera handienetik txikienera, neurritz kanpokotzat edo anormaltzat jo ez direnena, baldintza-agiri honetan adierazitako esleipen-irizpideen arabera.

Esleipen-proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko kontratua esleitzeko ebazpena onartzen ez den bitartean. Hala ere, kontratazio-organoak esleipena aurkeztutako proposamenaren arabera egiten ez badu, bere erabakiaren nondik norakoak azaldu beharko ditu.

HAMASEIGARREN KLAUSULA - ESLEIPEN-PROPOSAMENAREN ONDORIOAK. KONTRATUA EZ ESLEITZEKO EDO EGITEKO ERABAKIA ETA ADMINISTRAZIOAK ESLEIPEN-PROZEDURAN ATZERA EGITEA.

Kontratua esleitzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortzen proposatutako erakunde lizitatzaileren alde, eta ez ditu eskubide horiek eskuratuko, erakunde kontratatzailearen aurrean, kontratua formalizatu arte.

KPFLko 103. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratua ez esleitzeko edo egiteko erabakia edo prozeduran atzera egiteko erabakia kontratua formalizatu aurretik hartu ahal izanen du kontratazio-organoak.

Interes publikoko arrazoiengatik soilik hartu ahal izanen da kontratua ez adjudikatzeko edo egiteko erabakia, eta espedientean behar bezala justifikatuta. Prozeduran atzera egitekotan, kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen-prozedura arautzen dutenetan zuzendu ezin den arau-hauste bat egin behar da, eta espedientean atzera egiteko arrazoa justifikatu beharko da.

HAMAZAZPIGARREN KLAUSULA - DOKUMENTAZIOA ESKATZEA.

Kontratazio Mahaiak aldeztu aurretik eskatuta, esleipen-proposamena jasoko duen erakunde lizitatzailerekin egiaztatu beharko du kontratatzekeko nahitaezkoak diren betebeharrak betetzen dituela, ondoren eskatzen diren agiriak NALEPen bidez aurkeztuz, gehienez ere zazpi egun naturaleko epean; hori, halere, ez da eragozpena izanen egoera hori jakinarazten zaionetik 5 eguneko epean zuzenketak egiteko.

1.- Nortasun juridikoa eta ordezkaritza egiaztatzen dituen dokumentazioa:

- Erakunde lizitatzailera pertsona fisikoa bada:

- I.- Nortasun Agiri Nazionala edo hori legeztatu duen agiria.

- II.- Beste pertsona baten izenean agertuko direnak edo haren izenean proposamenak sinatuko dituztenek ahalorde nahikoa aurkeztuko dute, baita ahalduaren Nortasun Agiri Nazionala edo hori arauz ordeztuko duen agiria ere.

- Erakunde lizitatzailera pertsona juridikoa bada:

- I.- Dagokion erregistroan behar bezala inskribatutako eratzeko-erakundea eta, hala badagokio, aldaketako-erakundea.

II.- Beste pertsona baten izenean agertzen direnek edo horien proposamenak sinatzen dituztenek notario-ahalorde nahikoa, dagokion erregistroan inskribatuta agertu beharko dena, baldin eta alderdi horiek aurreko paragrafoan aipatutako eskrituran jasota ez badaude.

III.- Enpresaren ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionala edo hori arauz ordezten duen agiria.

- Enpresa Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzailen Borondatezko Erregistroan inskribatuta badago, enpresaren nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzeko aski izanen da Erregistroak emandako ziurtagiriaren kopia aurkeztea, enpresaren ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpen batekin batera; aipatu adierazpenean ziurtagiri hori indarrean dagoela adieraziko da.

Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu kideetako enpresak, Espainiakoak ez direnak:

I.- Enpresaren izenean proposamena sinatuko duen pertsonaren aldeko ahalorde nahikoa; dagokion erregistroan inskribatuta agertu beharko du.

II.- Enpresaren ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionala edo hori arauz ordezten duen agiria.

III.- Kasuan kasuko estatuko legeriak erregistro profesional edo komertzial batean inskribatuta egotea eskatzen badu, inskripzioa egiaztatzea.

Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikokoak ez diren estatuetako enpresak:

I.- Enpresaren izenean proposamena sinatuko duen pertsonaren aldeko ahalorde nahikoa; dagokion erregistroan inskribatuta agertu beharko du.

II.- Enpresaren ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionala edo hori arauz ordezten duen agiria.

III.- Espainiaren dagokion ordezkaritza diplomatikoaren txostena, egiaztatuz atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak onartzen duela, bere aldetik, Espainiako enpresek Administrazioarekiko kontratazioan parte hartzea, funtsean modu berdintsuan.

IV.- Espainiako ordezkaritza diplomatikoaren txostena; horretan jasoko da enpresa tokiko erregistro profesional, komertzial edo analogoan inskribatuta dagoela edo, halakorik ezean, kontratuaren xedeak barne hartzen dituen jardueren eremuan tokiko trafikoan ohikotasunez jarduten duela.

- Eskaintza elkarrekin parte hartzen duten lizitatzailak aurkezten badute, lizitatzaila bakoitzak bere nortasuna eta jarduteko gaitasuna egiaztatuko ditu, eta agiri pribatuan adierazi beharko dute sinatzen duten enpresen izenak eta inguruabarrak eta enpresa bakoitzaren parte-hartzea, eta kontratua indarraldian den bitartean erakunde kontratatzailearen aurrean enpresa guztien ordezkaritza osoa izanen duen pertsona edo entitatea izendatu beharko dute. Agiri hori elkartutako lizitatzaila bakoitzak edo horien ordezkariak sinatu beharko dute.

Erantzukizuna solidarioa izanen da beti, eta zatiezina kontratuaren ondoriozko betebeharrak guztiak.

2.- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda eta egunean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

3.- Kasuan kasuko ogasunek (Nafarroako Foru Ogasuna eta/edo Estatuko Ogasuna eta/edo Foru Ogasunak) eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrek emandako ziurtagiri positiboak, lizitatzailak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, hurrenez hurren, egunean dituela egiaztatzen dutenak. Ziurtagiri horiek sei hilabete lehenago, gehienez ere, egin beharko dira, proposamenak aurkezteko epea amaitu aurretik kontatzen hasita.

4.- Erakunde lizitatzailaren erantzukizunpeko adierazpena, indarraldian diren xedapenek ezartzen dituzten laneko segurtasun-, osasun- eta prebentzio-betebeharrak egunean dituela jasotzen duena.

5.- Atzerriko enpresei dagokienez, kontratutik zuzenean edo zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako, Espainiako maila guztietako Epaitegiren eta Auzitegiren jurisdikzioaren mende jartzen direla adieraziko duen aitortza, eta, hala badagokio, pertsona/entitate lizitatzailerari legokiokkeen jurisdikzio-foruari uko eginik.

6.- Ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun tekniko eta profesionala egiaztatzen dituen dokumentazioa, Baldintza-agiri honen zortzigarren klausulan ezarritakoaren arabera.

7.- Hala badagokio, azpikontratatistak/ek kontratua gauzatzeko beharrezko baliabideak dituela/dituztela eta enpresa azpikontrataista kontratua gauzatzeko konprometitzeko gaitasuna duten pertsonekin konpromiso formal duela egiaztatzen duen dokumentu bat duela/dutela egiaztatzea.

Xede horretarako aldi baterako eratuko diren enpresa-elkarteek edo batera parte hartuko duten lizitatzailerak aurkeztutako eskaintzen kasuan, elkartze horretako kide bakoitzak aipatutako adierazpena aurkeztu beharko du.

Kontratua erakunde kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik epe barruan formalizatzen ez bada, kontratazio-organoak kontratua suntsiaraztea erabaki dezake, aurrez interesdunari entzunda; kasu horretan, kontratatistak kontratuaren zenbateko zenbatetsiaren % 5eko zigorra eta kalte-galeren kalte-ordain osagarria ordaindu beharko ditu ehuneko hori gainditzen duen guztian, edo kontratazio organoak beste epe luzean bat ematea erabaki dezake.

HEMEZORTZIGARREN KLAUSULA – BERMEA.

Kontratua formalizatu aurretik, erakunde esleipendunak esleipenaren zenbatekoaren % 4 (BEZik gabe) jarriko du erakunde kontratatzailearen (Cederna Garalur Elkarte) alde, behin betiko fidantza gisa.

Bermea erakunde kontratistaren betebeharrak betetzearen mende egonen da berme-epea amaitu arte, eta, bereziki, berandutzeagatik zigorak ordaintzearen mende, baita kontratua gauzatzean kontratista horrek sor ditzakeen kalte-galerak konpontzearen baitan ere.

Halaber, berme hori konfiskatu ahal izanen da erakunde kontratistaren erruz ez-betetzeagatik kontratua suntsiarazten den kasuetan, egiaztatutako kalte-galerak estaltzeko behar den zenbatekoan.

Bermea ofizioz itzuliko da kontratuaren berme-aldia amaitutakoan, kudeaketa-unitateak aurrez txostenen bidez adierazita kontratua erakunde kontratatzaileak nahi zuen bezala bete dela edo erakunde kontratistaren errurik gabe konpondu dela.

KPFLko 70.3 artikuluan aurreikusitako edozein modutan eratu ahal izanen da.

HEMERETZIGARREN KLAUSULA. - ESLEIPEN-PROPOSAMENA .

Kontratazio Mahaiak esleipen-proposamena eginen dio kontratazio-organoari, eta, nolanahi ere, ezarritako irizpideak aplikatuz proposamen bakoitzari buruz eginen diren zenbatespenak adieraziko ditu; horretan, proposamen onargarri bat egin duten erakunde lizitatzaileren lehentasun-ordena adieraziko da, lortu dituzten puntuazioekin.

ESLEITZEA.

Kontratazio-organoak hilabeteko epean esleituko du kontratua, eskaintza ekonomikoa jendaurrean irekitzen denetik zenbatzen hasita.

Esleipen-egintza epe barruan ematen ez bada, lizitazioa onartutako erakundeek beren proposamena erretiratzeko eskubidea izanen dute, inolako zigorrik gabe.

Eskaintza ekonomikoak ireki eta hilabete igaro aurretik erakunde lizitatzailerak beren eskaintza erretiratzeko badute, lizitazioaren zenbatekoaren % 2aren baliokidea izanen den zigorra ezarriko zaie, eta hori berariazko ordainketa-gutun bidez gauzatuko da (KPFLko 100.1 artikulua).

Kontratazio-organoak egindako esleipena Kontratazio Mahaiak egindako proposamenera egokituko da, ordenamendu juridikoa urratuz egin den kasuetan izan ezik; horietan, Nafarroako Kontratazio Publikoaren Batzordeak horri buruz txosten loteslea egin ondoren, lizitazioa ondorioz gabe geratuko da, salbu eta arau-hausteak esleipenerako proposamena jasoko duen erakunde lizitatzailerari soilik eragiten dion kasuetan; halakoetan, esleipena hurrengo erakundearen alde egingen da, arau-hausteak eragiten ez dien eskaintzek izan duten balorazio-hurrenkeran.

Esleipenak arrazoitua izan beharko du, eta, behintzat, honako hauek jasoko ditu: hautagaitza edo eskaintza bat baztertzeko aintzat hartu diren arrazoiak eta aukeraturako eskaintzaren ezaugarriak eta abantailak. Esleipenaren eraginkortasuna eteteko epea eta dagozkion aurkaratze-bideak adieraziko dira, eta lizitazioan interesa duten erakunde guztiei jakinaraziko zaie.

HOGEIGARREN KLAUSULA. – KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA.

Kontratu hau kontratazio-organo eskudunak egindako esleipenaren bidez burutuko da.

Esleipenaren eraginkortasuna honako arau hauen arabera etengo da:

- a).- Etenda geratuko da hamar egun naturaleko epean, esleipenaren jakinarazpena erakunde lizitatzailerari bidaltzen zaien egunetik zenbatzen hasita, baldin eta bidalketa baliabide elektronikoen bidez egiten bada, edo 15 eguneko epean, beste bide batzuk baliatzen badira horretarako.
- b).- Etenda geratuko da, halaber, kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bat jartze hutsagatik, harik eta erreklamazio hori ebatzen den arte. Etete horrek KPFLko 102. artikuluan eta horrekin bat datozenetan ezarritako ondorioak eta iraunaldia izanen ditu.
- c).- Prozeduran interesa duten erakunde guztiek berariaz adierazten badute Nafarroako Kontratu Publikoaren Administrazio Auzitegian erreklamazio bat aurkezteari uko egiten diotela, bide emanen du etendura-epea behar baino lehenago amaitzeko, eta aurrera egin ahal izanen da prozedurarekin.
- d).- Halaber, lizitazio-deialdia duten prozeduretan (eskaintza bakarra aurkeztu direnetan) ez da aplikatuko atal honetan aurreikusitako etete-epea, eta beraz, prozedura izapidetzen jarraitu ahal izanen da.

Nolanahi ere, kontratazio-organoari egokituko zaio esleipen-prozedura modu arrazoituan esleitu gabe uzteko eskubidea, betiere jasotako eskaintzak ezarritako irizpideetara egokitzen ez badira.

Kontratua administrazio-dokumentazioan formalizatuko da 10 egun naturaleko epean, esleipena eteteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Aldez aurretik, erakunde esleipendunak, esleipena jakinarazi eta gehienez ere hamabost egun naturaleko epean, jarraian aipatzen diren agiri horiek aurkeztu beharko ditu Cederna Garalur Elkartearen bulegoetan:

- a).- Kontratuaren ondoriozko betebeharrak betetzeko **bermea** Cederna Garalur Elkartearen zainpean utzi izanaren egiaztatzea.
- b).- **Aseguru-poliza** eta kontratua gauzatzearen ondorioz hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalte-arriskuak estaltzen dituen aseguru-prima ordaindu dela egiaztatzen duen dokumentazioa, baldintza-agiri honen 21. klausulako 5. atalean adierazitako zenbatekoekin. (Ezbehar bakoitzeko 500.000 euro, gutxienez).
- c).- Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, elkartea eratu izanaren eskriturak (elkartzearen iraupena bat etorriko da kontratua iraungi arteko iraupenarekin), eta elkarre horren IFK.
- d).- **Obren kronograma**, gauzatze-epera egokitua. Kronograma horrek erakunde kontratatzaileak epe partzialak betetzen direla kontrolatzeko balioko du.
- e).- **Laneko Segurtasun eta Osasun Plana**, 1627/1997 Errege Dekretuan, urriaren 24koan, zehaztua.
- f).- **Hondakinak Kudeatzeko Plana**, eraikuntza- eta/edo eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duten otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuko 5.1. artikulua eta martxoaren 28ko 23/2011 Foru Dekretuaren arabera.

Kontratua erakunde kontratistari egotz dakizkiekeen arrazoiengatik epe barruan formalizatzen ez bada, kontratazio-organoak kontratua suntsiarazi ahal izanen du, interesdunari entzun ondoren; kasu horretan, lizitaziorako eraturako bermeak konfiskatuko dizkio, edo hark kontratuaren balio zenbatetsiaren 100eko 5eko zigorra eta kalte-galeren kalte-ordain osagarria ordainduko ditu, ehuneko hori gainditzen duen gutxian. Bestela, kontratazio-organoak beste epe luzaezin bat eman ahal izanen dio, kontratazioa arautzen duten baldintza-agirietan aurreikusitako zigor-araubidea aplikatuta, kontratua gauzatzeko atzerapenagatik.

Kontratua epe barruan formalizatu ez izana erakunde kontratatzaileari egotz dakiokenean, kontratistak kontratua suntsiaraztea eta dagokion kalte-galeren ordaina ematea eska dezake.

Kontratua ezin izanen da gauzatzeko hasi aurretik kontratua formalizatu gabe.

Esleipena, adostu ondoren, elektronikoki jakinaraziko zaie lizitazioan parte hartu duten erakundeei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, eta Nafarroako Kontratazio Atarian emanen da argitara, KPFLko 102. artikuluan ezarritakoaren arabera. Esleipen-ebazpena edo -erabakia titulu nahikoa izanen dira edozein erregistro publikotan sartzeko.

HOGITA BATGARREN KLAUSULA. - ALDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

21.1 Kontratistari ordaintzea.

Erakunde kontratistari ordainduko zaio soilik proiektu teknikoko dokumentuen arabera eta zuzendaritza teknikoak idatziz emandako aginduen arabera eginen duen obra.

Obra-zuzendaritzak neurtuko ditu egindako lanak, eta erakunde kontratista neurketa horretan presente egon daiteke. Obren edo obra-zatien dimentsioek eta ezaugarriek gerora eta behin betiko ezkutatuta geratu behar badute, kontratista horrek behar besteko aurrerapenaz jakinarazi beharko du kontu hori, zuzendaritzak neurketak egin eta datuak hartu ahal izan ditzan; horretarako, horiek definitzen dituzten planoak egin beharko ditu, eta horiekiko adostasuna sinatuko du kontratistak. Aldez aurreko abisurik ez badago (horren frogaraz erakunde kontratistari dagokio), kontratistak onartu egin beharko ditu gai horri buruz erakunde kontratatzaileak hartutako erabakiak.

Obra-mota bakoitzerako, proiektuaren neurketa-azterlanei dagokien epigrafean adierazitakoa hartuko da neurketa-unitate gisa. Neurketa amaitu ondoren, zuzendaritza teknikoak gauzatutako obraren balorazioa egingen du, unitate bakoitzari aurrekontuko dagokion unitate-prezioa edo dagokion prezio kontrajarria aplikatuz, kontuan hartuta baldintza-agirietan obra akastunak, pilatutako materialak, oroharreko partidak eta obran jarritako ekipoaren konturako ordainketak ordaintzeko aurreikusitakoa.

Erakunde kontratistak eskubidea izanen du egindako prestazioa jasotzeko, KPFLko 152. artikuluan eta hurrengoetan eta horrekin bat datozenetan eta baldintza-agiri honetan ezarritakoaren arabera.

Hala badagokio, Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginak (LED 2015, 1654), urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak, 44. artikuluan xedatutakoa aplikatzeari kalterik egin gabe, baldintza-agiriak beti jasoko du erakunde kontratistak subrogazioaren mende dauden langileei ordaindu gabeko soldatei erantzuteko duen betebeharra, baita sortutako Gizarte Segurantzarekiko kotizazioei erantzuteko betebeharra ere, nahiz eta kontratua suntsiarazten den eta langileak erakunde kontratista berriak subrogatzen dituen; betebeharrak hori ez dagokio, inola ere, azken horri.

Kasu horretan, erakunde kontratatzaileak, soldata horiek ordaindu ez direla egiaztatu ondoren, erakunde kontratistari zor zaizkion zenbatekoak atxikiko dizkio soldata horiek ordainduko direla bermatze aldera. Halaber, ez dio behin betiko bermea itzuliko, soldata horiek ordaindu direla egiaztatzen ez den bitartean.

Erakunde kontratatzaileak hilero egingo ditu gauzatutako obrari dagozkion obra-ziurtagiriak, dagokion aldiaren ondorengo hamabost egunen barnean, KPFLko 168. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

Ziurtagiri horien ordainketak konturako ordainketak dira, azken ziurtagiriaren emaitzaren kontura.

Erakunde kontratatzaileak -Cederna Garalur elkarteak- hogeita hamar egun naturaleko epean ordaindu beharko dio kontratistari kontratuaren prezioa, obra-ziurtagiriak ematen direnetik zenbatzen hasita, KPFLko 155. artikuluan jasotako arauari kalterik sortu gabe.

Ematen diren ziurtagiriak eta erakunde kontratistari ordaintzen zaizkion zenbatekoak konturako ordainketak izanen dira; horrek ez du esan nahi, inola ere, ordaindutako obra horiek onartu eta jaso direnik, gauzatutako obraren azken ziurtagiriaren ondorioz eta kontratuaren likidazioaren kontura. Konturako ordainketa horietan, KPFLko 198. artikuluan 2. ataleko bigarren paragrafoan xedatutakoa beteko da, eta Kontu-hartzaileari jakinarazi beharko zaio agindu honetan adierazitako egoera gertatzen bada, jasotzeko balizko laguntzarako.

Aurrekontuan oroharreko prezioan adierazitako partidak preskripzio tekniko partikularren agiriari adierazitakoaren arabera ordainduko dira.

21.2 Gauzatutako baldintza bereziak:

KPFLko 66. artikuluan xedatutakoaren babesean, ondorengo baldintza horiek ezartzen dira berariazko izaera sozializat:

a).- Kontratuak arlo horietan indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapenak bete behar ditu: fiskalitatea, Gizarte Segurantzak, ingurumenaren babesa, enpleguaren babesa, genero-berdintasuna, sexuagatiko edo sexu-jazarpenagatiko jazarpenekoak, lan-baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa eta lan-arloko gainerako xedapenak eta desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea. Halaber, kontratuak desgaitasuna duten pertsonen kopuru edo ehuneko zehatz bat kontratatutako betebeharra du, eta, bereziki, kontratatu beharreko jardura dagoen sektorean aplikatu beharreko eremu baxueneko azken sektore-hitzarmen kolektiboak ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

b).- Eskaintza ekonomikoak aproposa izan beharko du, esleipendunak dagokion sektoreko hitzarmena aplikatzearen ondoriozko kostuari aurre egin ahal izateko, gutxienez. Horrez gain, aurreikusitako soldaten orduko prezioak ez daitezke izan, inoiz, orduko prezioak, gehi hitzarmenaren orduko prezio-hobekuntzak gehi Gizarte Segurantzako kostuak baino txikiagoak.

c).- Erakunde kontratatzaileek, kontratua gauzatzeko, kontratistari datu pertsonalak komunikatzea eskatzen duten kontratuetan, kontratua betearazteko baldintza berezia izanen da, funtsezkoa, kontratistak datuak babesteari buruzko araudi nazionala eta Europar Batasunekoa betetzea. Aurrekoa aplikatuz, kontratistaren betebeharra izango da, bereziki:

1.- Kontratua formalizatu aurretik adierazpen bat aurkeztea; horretan, zerbitzariari lotutako zerbitzuak emateko erabiliko diren zerbitzariak non kokatuko diren adieraziko da.

2.- Kontratua formalizatu aurretik, adieraztea ea aurreikusita duten zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak azpikontratatzea, eta azpikontratistaren izena adieraztea. Azpikontratistak kontratuaren zati hau gauzatzeko behar diren kaudimen-baldintzak bete beharko ditu.

3.- Kontratuaren iraunaldian gertatzen den edozein aldaketaren berri ematea, aurreko adierazpenean emandako informazioari dagokionez.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna. Arlo honetan honako baldintza hauek bermatu beharko dira:

- Enpresa kontratistak 250 langile baino gehiago baditu, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitako Berdintasun Planaren diseinua eta aplikazio eraginkorra egiaztatu beharko du.

- Kontratua gauzatzean sortzen diren agiri, publizitate, irudi edo material guztietan hizkuntza ez-sexista erabili beharko du enpresa edo erakunde esleipendunak, emakumea baztertzeko duen irudi oro edo estereotipo sexista oro saihestu beharko du eta berdintasun-balioekin, presentzia orekatuarekin, aniztasunarekin, erantzunkidetasunarekin eta genero- eta identitate-pluraltasunarekin lotutako irudia sustatuko du.

Desgaitasuna:

- Enpresa kontratistak plantilla osoan 50 langile edo gehiago baditu, egiaztatu beharko du gutxienez % 2k % 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutela.

Konpromisoen betetzea:

Erakunde kontratatzaileak egoki deritza agiri eta datu guztiak eskatu ahal izanen dizkio esleipendunari, eskaintzan adierazitako konpromisoak betetzen dituela egiaztatzeko. Era berean, ikuskapenak egin ahal izanen ditu ondorio berberetarako.

Kontratua gauzatzen duten langileei berdintasunaren eta kontziliazioaren arloko eskubideei buruzko sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak emateko konpromisoa enpresak horren inguruan egingen duen erantzukizunpeko adierazpenaren bidez justifikatuko da. Adierazpen horretan berriaz aipatuko da zenbat pertsona joan diren ekintzetara, baita zenbat denbora eta leku behar izan den eta ikastaroak zenbat pertsonak eman dituzten ere.

Berdintasunaren arloko gizarte-esleipeneko irizpideei buruzko erantzukizunpeko adierazpenean aurkeztutako jarduketak amaituta eta obraren azken ziurtagiria egin aitzin, erakunde esleipendunak

landutako esku-hartzei buruzko egiaztagiria bidali beharko dio kudeaketa-unitateari; horretan jaso beharko dira esku-hartze horien deskripzio-memoria, langileen zerrenda (dagozkion sinaduren bidez akreditatuta) eta esku-hartzeak gauzatzeko ardura duen pertsonaren edo taldearen zerrenda (dago(z)kion sinaduraren/en bidez egiaztatuta).

Gauzatzeko baldintza bereziak betetzea:

Enpresa esleipendunak 250 langile baino gehiago baditu, kontratua sinatu eta 10 egun balioduneko epean, enpresako plantilla osatzen duen pertsona-kopuruaren ziurtagiria bidali beharko dio Kudeaketa Unitateari, eta, horrez gain, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitako Berdintasun Planaren diseinua eta aplikazio eraginkorra egiaztatzen duen dokumentazioa bidali beharko du.

Hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatzeko, enpresa esleipendunak Kudeaketa Unitatearen oniritzia izan beharko du kontratua gauzatzean sortutako dokumentazioa, publizitatea, irudia edo materiala kanpoan zabaldu aurretik. Horretarako, esleipendunak arestian adierazitakoaren kopia edo argazkiak emanen ditu.

Enpresa kontratistak plantilla osoan 50 langile edo gehiago baditu, egiaztatu beharko du, agiriaren bidez eta esleipenaren jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean, plantillaren % 2k, gutxienez, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duela.

Erakunde kontratatzaileak, Cederna Garalur Elkarteak, eskatuta justifikatu beharko da baldintza horiek betetzen direla.

Kontratua gauzatzeko baldintza berezi guztiak kontratua gauzatzen parte hartuko duten azpikontratistei eskatuko zaizkie.

21.3 Kontratua suntsiarazteko arrazoi izan daitezkeen oinarrizko betebeharrak.

Kontratua gauzatzeari begira, oinarrizko betebeharrak izanen dira hauek:

- Erakunde esleipendunaren proposamena betetzea, balioespenaren xede izan diren alderdi guztietan, kontraturako ezarritako esleipen-irizpideen arabera.
- Obren kronograma eta Segurtasun eta Osasun Plana epearen barnean aurkeztea.
- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak betetzea.
- Azpikontratazioaren inguruan administrazio-klausula partikularren agiri honetan xedatutako betebeharrak.
- Kontratua gauzatzeko atxikitako baliabide pertsonal eta materialen inguruan administrazio-klausula partikularren agiri honetan xedatutako betebeharrak.
- Indarraldian dauden araudian eta segurtasun- eta osasun-planean segurtasunari eta osasunari buruzko neurriak hertsiki betetzea.
- Langileei soldata eta PFEZaren atxikipena ordaintzea, baita Gizarte Segurantzari dagozkion kuotak unean-unean ordaintzea ere.
- Kontratua gauzatzearen ondorioz hirugarrenei eragindako kalteez erantzutea; horretarako, erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat izenpetu beharko du, gutxienez 500.000 eurokoa ezbehar bakoitzeko.

21.4 Lanak gauzatzea.

Kontratua gauzatzeko, zorrotz bete beharko dira klausula hauek, preskripzio teknikoak eta Proiektu Teknikoa (eta baldintza-agiri honen 1. klausulan aipatzen diren gainerako agiriak); horiek kontratuaren oinarri dira, obra-zuzendari teknikoak eta, hala badagokio, kontratuaren arduradunak interpretazio teknikoan erakunde kontratistari emandako jarraibideen arabera.

Erakunde kontratatzaileak izendatutako zuzendari teknikoaren iritziz obraren zatiren bat gaizki gauzatuta balego, kontratistak berregin egin beharko du zati hori, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, nahiz eta jaso ondoren antzeman oker hori.

Obraren zuzendaritzaren iritziz, hala ere, unitate akastunak edo kontratuaren baldintzak zorrotz betetzen ez dituztenak onargarriak badira, erakunde kontratatzaileari proposa diezaioke onartzea, prezioak jaitsita, ondorioz.

Obrak egiten diren bitartean eta berme-epea bete arte, erakunde kontratista da obran antzeman daitezkeen akatsen erantzulea (KPFLko 169. artikulua).

Kontratua erakunde kontratistaren arriskura eta menturara gauzatuko da, eta ezin izanen da prezioak berrikusi.

Erakunde kontratista izanen da obrak gauzatzearen ondorioz sortutako kalte-galeren erantzulea hirugarrenen aitzinean; horretarako, dagokion erantzukizun zibileko aseguruia izan beharko du. Kalte eta galera horiek erakunde kontratatzailearen agindu baten berehalako eta zuzeneko ondorioz sortu badira, erakunde kontratatzailea izanen da erantzulea legeetan ezarritako muga barruan (KPFLko 149. artikulua).

Erakunde kontratistak OBRA-BURU bat izendatu beharko du, behar den kualifikazioa izanen duena. Horrek, gehienez ere astebeteko epean ordezkatu beharko da erakunde kontratatzaileak hala eskatzen badu; erakunde kontratatzaileak eskubidea izanen du obra-burua ukatzeko, justifikatutako arrazoiak baliatuta.

Segurtasun eta Osasun Planean jasotako aurreikuspenak bete beharko ditu.

Erakunde kontratistak obra behar bezala amaituta eta xedearen arabera erabiltzeko moduan entregatu beharko du; bere kontura izanen da erakunde eskudunetatik behar beste baimen lortzea, eta horiek izapidetzeak eta emateak sortzen dituen gastuak (proiektuak idaztea eta dagozkion tasak ordaintzea barne, hala badagokio).

21.5 Harrera eta bermearen epea.

Erakunde kontratistak, gutxienez hamabost egun lehenago, idatziz jakinaraziko dio obra-zuzendaritzari kontratua amaitzeko edo gauzatzeko aurreikusitako data, obra jaso ahal izateko.

Berme-epea HIRU (3) urtekoa izanen da eskulanean, eta 10 urtekoa materialen bermean; epe horietan, erakunde esleipendunak hornitutako ekipoak konpondu eta/edo ordeztu beharko ditu, instalazioak edo fabrikazioak huts egiten badu.

Obrak jasotzea.

1.- Erakunde kontratistak, obrak amaitu baino 20 egun lehenago, obren eraginpean egonen diren lursailen jabe partikularrei epea irekiko die alegazioak aurkezteko, amaitu gabe dauden akaberak amaitu ahal izateko, horietako bakoitzarekin. Betebehar horren barnean dago ingeniariatzako prestakuntza edo antzekoa izan beharko duen pertsona bat jartzea. Irekitako epe horretan, lanaldi osoko jardunarekin, obren eraginpean egon diren finka bakoitzera joanen da, kaltetutako partikularrek egindako erreklamazio guztiei erantzuteko eta planteatutako kexei konponbide teknikoa emateko; horretarako, obraren amaierako ziurtagiria eman aurretik, jabearen onespena izanen duen akabera egokia gauzatzeko aginduko du.

2.- Obrak amaitu ondoren, obrak jasotzeko egintza formala eginen da 15 eguneko epean. Bertan, erakunde kontratatzaile Cederna Garalur Elkartearen lehendakaria edo horren ordezkaria, kontratua kudeatzeko unitateak izendatutako teknikari bat (kontratazio-organoaren ordezkari gisa), obra-zuzendaritzaz arduratu den teknikaria eta erakunde kontratista egonen dira, egoki deritzon langileen laguntzarekin, eta obra-amaierako akta batean jasoko da.

3.- Obrak behar bezala eginda badaude, hala jasoko da aktan, eta berme-epea hasiko da formalizatu eta hurrengo egunean. Bil hilabeteko epean, harrera-akta egiten den egunetik zenbatzen hasita, dagokion azken ziurtagiria adostu eta kontratistari jakinarazi beharko zaio, eta, hala badagokio, ateratzen den saldoa ordaindu beharko zaio.

Obrak behar bezala eginda ez badaude, berandutzeagatik zigorak gorabehera, obra-zuzendari teknikariak antzemandako akatsak adieraziko ditu eta horiek zuzentzeko beharrezkoak diren jarraibideak emanen ditu eta horretarako epea ezarriko da. Epe hori igarotakoan, erakunde kontratistak antzemandako akatsak konponduko ez balitu, beste epe luzaezin bat gaitu ahal izanen litzateke, edo kontratua suntsituzat jo.

4.- Obren zati batzuk jaso ahal izanen dira, baldin eta faseka egin badaitezke eta erabilera publikorako faseka eman badaitezke, kontratuan ezarritakoaren arabera.

5.- Interes publikoko salbuespenezko arrazoiengatik (espedientean behar bezala egiaztatuta) aldeztu aurretik harrera formala egin gabe obrak egiazki okupatzea edo jendeak erabiltzea erabakitzen balitz, obra horiek erakunde kontratatzaileak hartutzat joko dira, berme-aldia zenbatzeari dagokionez.

6.- Berme-epea amaitu aurreko hamabost egunetan, obra-zuzendari teknikariak, ofizios edo erakunde kontratistak eskatuta, obren egoerari buruzko txostena idatziko du. Gorabeherarik hautemanen ez bada, kontratista bere betebeharretatik kanpo geratuko da, ezkutuko akatsen kasuetarako xedatutakoan izan ezik.

Txostenean obrak egitetik eratorritako akatsak egiaztatzen badira, eta akats horiek obrak erabiltzearen ondoriozkoak ez badira, zuzendari teknikariak behar diren jarraibideak emanen dizkio erakunde kontratistari akatsak konpon ditzan, beharrezko epea adierazita; berme-epeak indarrean jarraituko du, behar bezala zuzendu arte.

7.- Ez zaio berme-eperik eskatuko obrari, baldin eta obraren iraupenak geroagoko xede praktikorik ez badu, ezta kontserbazio hutsa gainditzan duen mantentzea eskatzen dutenak ere.

Azken likidazioa KPFLko 173. artikuluan ezarritakoari lotuko zaio.

21.6 Erakunde kontratistari eska dakizkiokeen gastuak.

Erakunde kontratistaren kontura izanen dira lizitazio- eta esleipen-iragarkiaren edo -iragarkien gastuak eta, hala badagokio, kontratua formalizatzearen gastuak, baita aplikatzekoak diren beste edozein gastu ere, indarraldian dauden xedapenen arabera, xedapen horiek adierazitako moduan eta zenbatekoan.

Erakunde kontratistaren kontura izanen dira, halaber, obra identifikatzeko kartelak, obraren izaeragatik edo finantzazioagatik hala eskatzen den kasuetan ezartzen diren ezaugarriekin.

21.7 Kutsadura (obretarako) prebenitzeko eta kontrolatzeko eta ekosistemen inguruko betebeharrak.

Eraikuntzan erabilitako eraikuntzako osagaiek eta materialek ez dute amiantorik izanen, ezta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1907/2006 (EE) Erregelamenduaren XIV. eranskinean identifikatutako substantziarik ere (Osagaiaren eta inbertsioaren 8. paragrafoan adierazitako mailak errespetatuko dira).

Obra-fasean zarata, hautsa eta emisio kutsatzaileak murrizteko neurriak hartuko dira, eta lurzoruen eta uraren balizko kutsadurari dagokionez indarraldian dagoen araudia betez gauzatuko da.

Ekosistemak

Jarduketak biodibertsitateari erreparatuta sentikorrak diren eremuei (Natura 2000 Sarean jasotakoak, Unescoren Munduko Ondarea -Done Jakue Bidea-), biodibertsitaterako eta babestutako beste eremu batzuetarako funtsezkoak diren eremuei, edo, eremu horietatik gertu dauden beste eremuei eragin baliezaieke, habitatei buruzko Zuzentarauaren 5., 6. (3) eta 12. artikulua bete beharko dira (miteco.gob.es). Hegaztiei buruzko zuzentaraua: oinarritzko informazioa (miteco.gob.es). Horretarako, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa (IIE) badago, ezarritako baldintzak jasoko dira azterlanean.

21.8 Obrak seinalatzeko betebeharrak.

Erakunde kontratistak honako hauek instalatu beharko ditu, bere kontura: obrarako sarbidea adieraziko duten seinale zehatzak, lanek hartuko duten eremuko zirkulaziokoak, eta obrak gauzatzearen ondorioz egon daitezkeen arrisku-puntuak adieraziko dituztenak.

21.9 “Europar Batasunak finantzatzen duen ‘Next GenerationEU’ - Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana”-ren inguruko betebeharrak.

Iruzzurren aurkako neurrien plana

Baldintza-agiri honek berarekin dakar erakunde kontratatzaile Cederna Garalur Elkartearen Iruzzurren aurkako Neurrien Plana baldintzarik gabe eta erreserbarik gabe onartzen da (plan hori 2024ko azaroaren 6ean onartu zen). Xedapen horiek oso-osorik bete behar dira, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, antzemateari eta zuzentzeari buruzko Autonomia Erkidegoko, Estatuko eta Europako araudia erabat errespetatuz, baita Europar Batasunaren finantza-interesak babestearen inguruan Batasunaren erakundeek emandako erabakiekin bat etorritik ere.

Iruzzurren aurkako Plan hori onartu da Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikulua eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (SEEP) kudeaketa-sistema konfiguratzeko duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 6. artikulua ezarritako betebeharrak betez; horiek ezartzen dute SEEPeko neurriak betetzen parte hartuko duen erakunde erabakitzaile edo betearazle orok Iruzzurren aurkako Neurrien Plan bat eduki behar duela.

Nolanahi ere, lizitatzailleek lehia askearen, gardentasunaren eta osotasunaren printzipioak errespetatu beharko dituzte lizitazio-fase osoan, baita kontratua betearaztearen eta betetzearen printzipioak ere; hori dela eta, kontratazio-organoari berehala jakinarazi beharko diote kontratazio-espedienteari eragin diezaioketen gatazka-egoera potentzial edo erreal oro egoera horren berri izan badute.

Kontratazio-espediente hori eta hori gauzatzea Europako Batzordeak, Iruzuraren aurkako Borrokarako Bulegoak (OLAF), Europako Kontuen Auzitegiak eta Europako Fiskaltzak ezarritako kontrolen mende egonen dira, eta, horretarako, organo horiei kontratuari buruz eskatzen den informazio guztia eskuratzeko aukera emanen zaie.

Cederna Garalur Elkartearen iruzurraren aurkako plana esteka honetan kontsulta daiteke:
<https://www.cederna.eu/eus/>

Interes-gatazkari heltzeko neurriak

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratazio-espediente honetan parte hartzen duten pertsonetako edozeinengan artikuluko 2. atalean aurreikusitako arrazoiak bat gertatzen bada, prozeduran parte hartzeari uko egin beharko dio, eta haren nagusi hurrenari jakinarazi beharko dio, eta hark bidezkoa dena ebaztuko du.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduko 61.2 artikuluen arabera, egoera horietakoren batean dagoenaren goragoko organoek edo hierarkian gorago dagoenak espedientean esku hartzeari uko egin diezaiola agindu ahal izanen dio, eta, abstenitu ezean, dagokion erantzukizunari erantzun beharko dio.

Kasu horietan, gertakariak inplikaturako pertsonarekin aztertuko dira, egoera argitzeko eta, hala badagokio, pertsona prozeduratik kanpo uzteko, bai plantillako kidea bada, bai kanpoko aditua bada. Kanpo geratzea planteatu beharko da ez soilik benetako interes-gatazkarik badago, baita inpartzialtasunari buruzko zalantza daudenean ere.

Errekusatzeko aukera

Aurreko atalean aipaturako egoeraren baten edo batzuen eraginpean dagoen agintaria edo erakunde kontratatzailearen zerbitzura dauden pertsonak abstenitzen ez badira, errekusatzeko aukera izanen du interesdunak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeko 24. artikuluan xedaturakoaren arabera. Ildo horretan, errekusazioa idatziz planteatu ahal izanen zaio, prozedura izapidetzeko edozein unetan, kontratazio-organoari, Mahaiaren Lehendakariari eta, kasuen arabera, baita Koordinaziorako eta Jarraipenerako Unitateari ere, horretarako oinarri dituen arrazoiak adierazita. Hurrengo egunean, errekusatuak bere nagusi hurrenari adieraziko dio alegaturako kausa beregan gertatzen den ala ez. Lehenengo kasuan, nagusiak errekusatzeko arrazoiak dagoela ikusten badu, berehala ordezkatzeko erabakiko du. Errekusatuak errekusatzeko arrazoiak ukatzen badu, nagusiak hiru eguneko epean ebaztuko du, egoki deritzon txostenak eta egiaztapenak egin ondoren.

Salaketarako kanal propioa.

Lizitazio-prozedura honetan balizko interes-gatazka baten berri duten pertsonak edo erakundeek berehala eman beharko diote horren berri kontratazio-organoari, helbide honen bidez:

https://canaldenunciasgfm.es/canal_front.aspx?uidcanal=a73093f3-b8d2-425e-8bbb-17018a573369&lang=eus-EUS

Hala badagokio, kontratazio-prozeduraren ardura duen administrazio-organoaren titularrak Iruzuraren aurkako Neurrien Planean jasotako iruzurra zuzentzeko eta jazartzeko neurriak hartuko ditu.

Interes-gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA)

Kontratuaren fase guztietan esku hartuko duten pertsona guztiek Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) bete behar dute, eta adierazpen horiek kontratazio-espeditentean sartuko dira.

Erakunde lizitatzailerak guztiek IGEA bat aurkeztu beharko dute 1. gutun-azalean bete beharreko dokumentazioan, baldintza-agiri honen IV. eranskinean agertzen den ereduaren arabera.

Betebehar hori funtsezko betebeharra da, KPFLko 160. artikuluko 1. atalean aurreikusitakoaren ondorioetarako; hortaz, formalizatu aurretik hori ez betetzea lizitazioetik baztertzeko arrazoia izanen da, eta kontratua gauzatzen den bitartean adierazitakoa ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izanen da. IGEA hori berdin eskatuko zaie kontratua gauzatzen parte hartzen duten azpikontratista guztiei ere, dagokion kontratua formalizatu aitzin.

Dokumentazioa zaintzeko betebeharra.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduko 132. artikulua ezarritako betebeharra betetz, kontratistek eta azpikontratistek erregistro bat izanen dute eta finantzaketari buruzko egiaztagiria, datu estatistikoak eta gainerako dokumentuak gordeko dituzte, baita formatu elektronikoa egindako erregistroak eta dokumentuak ere, bost urteko epean, saldoa edo, hori ordaindu ezean, eragiketa ordaintzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori hiru urtekoa izanen da finantzaketa 60.000 eurokoa edo hortik beherakoa bada.

Auditoretzei, errekurtsoei, auziei, konpromiso juridikoei edo OLAFen ikerketei buruzko erreklamazioen izapideei buruzko erregistroak eta dokumentuak gorde egingen dira auditoria, errekurtsu, auzi, erreklamazio edo ikerketa horiek amaitu arte. OLAFen ikerketei buruzko erregistroen eta dokumentuen kasuan, erregistroak eta dokumentuak gordetzeko betebeharra ikerketa horiek hartzaileari jakinarazi ondoren aplikatuko da.

Erregistroak eta dokumentuak gordeko dira bai jatorrizkoak, bai jatorrizkoen kopia konpultsatuek, bai eskuarki onartutako datu-euskarrietan (horien artean, jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoetan) edo soilik bertsio elektronikoan dauden dokumentuak. Bertsio elektronikoak badaude, ez dira jatorrizkoak beharko, baldin eta agiri horiek auditoretzarako jatorrizkoen baliokidetzat eta fidagarritzat hartzeko aplikatzekoak diren legezko baldintzak betetzen badituzte.

Betebeharrak komunikazioaren arloan

Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan kontratua gauzatzearekin lotura duten komunikazio-jardura guztietan Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema konfiguratzeko duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduko 9. artikuluan ezarritako betebeharra betetz, kontratistek eta azpikontratistek nabarmen eta agerian erakutsi beharko dute Europar Batasunaren ikurra, eta horretan, gainera, Europar Batasunetik finantzaketa jaso izanaren adierazpen bat egingen da.

Europar Batasunaren ikurra desberdina izanen da eta berezia egon beharko du, eta ezin izanen da aldatu beste ikus-marka, marka edo testu batzuk gehituz. Egindako esku-hartzeen informazio- eta komunikazio-neurri horiek informazio-karteletan, plaketan, argitalpen inprimatuetan eta elektronikoetan, ikus-entzunezko materialean, web-orrietan, iragarkietan eta prentsara bidalitakoetan, ziurtagirietan eta bestelakoetan gehituko dira. Informazio-kartel eta plaka guztiak leku ikusgarrian eta jendeak erraz ikusteko moduan jarriko dira.

Egindako esku-hartzeen informazio- eta komunikazio-neurri horiek informazio-karteletan, plaketan, argitalpen inprimatuetan eta elektronikoetan, ikus-entzunezko materialean, web-orrietan, iragarkietan eta prentsara bidalitakoetan, ziurtagirietan eta bestelakoetan gehituko dira. Informazio-kartel eta plaka guztiak leku ikusgarrian eta jendeak erraz ikusteko moduan jarriko dira.

Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema konfiguratzeko irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduko 8.2 eta 9. artikuluei buruzko betebeharrak

a).- Erakunde kontratistak honako hauek bete beharko ditu:

- 1.- Bere datuak eman beharko ditu (IFZ, izena edo sozietatearen izena eta helbide fiskala) eta, hala badagokio, azpikontratistenak. Funtzen azken onuradunaren benetako titularren izena eta jaiotze-data ere eman beharko ditu.
- 2.- Inplikaturako administrazio publikoen arteko datu-lagapena onartu behar du, aplikagarria den Europako araudian aurreikusitakoa betetzeko, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera.
- 3.- SEEPen ezarritako zeharkako printzipioak, kudeaketaren xede den eremuan izan dezaketena, betetzeko konpromisoa hartzen du (horien artean, besteak beste, ekonomia zirkularraren printzipioak eta «ingurumenari kalte esanguratsurik ez egitea» printzipioa), baita SEEPen jasotako etiketa berdea eta digitala betetzeko konpromisoa ere.
- 4.- Egiaztatu beharko du inskribatuta dagoela Zerga Administrazioako Estatu Agentziako enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen erroldan edo Foru Zerga Administrazioaren errolda baliokidean, eta bertan jaso beharko da lizitazio-prozeduran parte hartu duen egunean benetan garatzen ari den jardura.
- 5.- Enkargaturako lanei buruzko informazio- eta komunikazio-neurrietan (informazio-kartelak, plakak, argitalpen inprimatuak eta elektronikoak, ikus-entzunezko materiala, web-orriak, iragarkiak eta prentsara bidalitakoak, ziurtagiriak eta abar) Europar Batasunaren ikurra jarri beharko du «Europar Batasunaren Next Generation EUk finantzatua» testuarekin batera, SEEParen logoarekin batera, honako esteka honetan eskuragarri: <http://planderecuperacion.gob.es/identidad-visual>.
- 6.- Europako Batzordearen, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Bulegoaren, Europako Kontuen Auzitegiaren eta Europako Fiskaltzaren kontrolen mende jarriko da, eta organo horiek enkarguari buruzko informazioa eskuratzeko duten eskubidearen mende.

b).- Enpresa lizitatuak (eta azpikontratatuek, hala badagokio) une oro beteko dute kontratazio honen xede diren esku-hartzei aplikagarri zaien ingurumen-legeria. Horretarako, era horretako zerbitzu-mota hori emateko indarrean dagoen araudiak (edo kontratua indarraldian dagoen bitartean promulgatuko dena), bereziki ingurumenari buruzko araudiak, ezartzen dituen lizentzia edo baimen guztiak izan behar ditu.

Nolanahi ere, ingurumen-ebaluazioko prozedurak errespetatuko dira, indarrean dagoen legeriaren arabera aplikatzekoak badira, baita ingurumen-legediaren arabera aplikagarriak izan daitezkeen ondoriozko beste ebaluazio batzuk ere.

Ondorio horietarako, erakunde kontratistak “SEEParen esku-hartzeak gauzatzeari buruzko konpromisoaren adierazpena” aurkeztuko du ‘A’ gutun-azalean. Adierazpen hori dagokion eranskin gisa jasota dago, eta interes-gatazkarik ezaren adierazpena ere jasotzen du.

HOGEITA BIGARREN KLAUSULA. AZPIKONTRATAZIOA.

Azpikontratazioaren kasuan, KPFLko 107. artikuluan xedatutakoa beteko da.

Erakunde kontratistak segurki azpikontratatu diren enpresa guztiei buruzko informazioa eman eta ‘A’ gutun-azalean sartu beharko ditu.

HOGEITA HIRUGARREN KLAUSULA. - AURREIKUSITAKO KONTRATU-ALDAKETAK.

Kontratua aldatu ahal izanen da, KPFLko 114. eta 115. artikuluetan aurreikusitako baldintzetan eta kasuetan.

Baldintza-agiri honen 4. klausulan aurreikusitakoaren arabera, hasierako kontratuan edo obra-proiektuan aurreikusitakoekin alderatuta benetan gauzatutako unitateen kopurua handitzen bada, eta gastuaren gehikuntza baldintza-agiri honetan adierazitako ehunekoa baino handiagoa ez bada (ehuneko hori ezin da izan kontratuaren esleipenaren zenbatekoaren % 10 baino handiagoa), egiaztagiri edo ordainketa partzialetan eta kontratuaren amaierako ziurtagirian sartuko dira, izapide gehiagorik gabe. Horretarako, ehuneko hori % 10 izanen da.

Zehazki, aurreko ataletan aurreikusitakoaren arabera, berariaz nabarmentzen da obrak modu egokian egiteak erakunde kontratatzailearentzat dituen interes publikoa eta garrantzia, obren eraginpean dauden finka partikularretako afekzioei eta akaberei dagokienez. Horretarako, bariazio/gehikuntza posiblearen ehuneko bat finkatzen da: proiektuaren zenbateko osoaren % 10era artekoa. Igoera hori ez da, inola ere, funtsezkoa izanen.

Hala ere, gauzatutako unitateak gehitu egiten badira eta, ondorioz, aldaketa bat izapidetu behar bada, aldaketa horiek aldaketa-espeditentean jaso beharko dira.

Nolanahi ere, unitate-kopuruaren aldaketen zenbatekoak eta kontratuaren beste aldaketa batzuen zenbatekoak batuta ezingo dute gainditu baldintza-agiri honetan adierazitako ehunekoaren muga, eta ehuneko horrek ezingo du gainditu, inolaz ere, kontratuaren esleipen-zenbatekoaren % 50. Horretarako, ehuneko hori % 50 izanen da.

Kontratu-aldaketei dagokienez, KPFLko 114., 115. eta 143. artikuluetan xedatutakoa beteko da.

HOGEITA LAUGARREN KLAUSULA. - KONTRATUA LAGATZEA.

Kontratua laga ahal izanen da KPFLko 108. artikuluan ezarritako mugekin eta baldintzekin:

a).- Baldintza-agirietan aurreikusitako zalantzarik gabeko klausula bat aplikatzearen ondorioz laga bada, betiere hasierako prestazioaren % 20, gutxienez, gauzatu bada, gauzatzen hasi zenetik urtebete igaro bada eta kontratazio-organoak berariaz baimentzen badu.

b).- Hasierako pertsona/erakunde kontratistaren posizioaren oinordetza unibertsal edo partzialagatik, sozietateen berregituraketa edo egitura-aldaketaren ondorioz izan bada, enpresak edo enpresa-adarrak edo jarduerak eskuratzeari, horiekin bat-egitea, banantzea, zatitzea, ekarpena egitea edo eskualdatzea barne, edo hasierako erakunde kontratista konkurtso-egoeran egoteagatik, likidazio-fasea irekita egonda ere.

Konkurtso-egoeran egonez gero, kontratua lagatzeko proposamena kontratazio-organoari jakinarazi beharko zaio, horrek aukera eman diezaien lizitazioan parte hartu duten gainerako erakundeei kontratuaren lagapen-hartzaile izateko, sailkapen-ordenaren arabera. Erakunde horiek aukera hori baztertzen badute, erakunde lagatzaileak askatasunez aukeratu ahal izanen du pertsona/erakunde lagapen-hartzailea.

Pertsona/erakunde lagapen-hartzaileak ezin izanen du kontratatzeko debekurik izan; erakunde lagatzaileari eskatzen zaion kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesional bera eduki beharko ditu, gutxienez, eta egiaztatu egin beharko du baldin eta kontratazio-organoak hala eskatzen badu.

Pertsona/erakunde lagapen-hartzailea subrogatuta geratuko da lagatzaileari legozkiokeen eskubide eta obligazio guztietan.

HOGEITA BOSGARREN KLAUSULA. - EZ BETETZEAGATIKO ZIGORRAK ETA KALTE-ORDAINAK.

25.1 Berandutzeagatiko zigorrak.

Erakunde esleipendunak/kontratatistak kontratazio-organoak kontratua gauzatzeko ezarritako epea bete beharko du, baita horretarako aurkeztutako kronograman ezarritako epe partzialak ere.

Zigorrak ezartzea.

Erakunde kontratatistak baldintza-agiri honetan edo Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean adierazitako baldintza eta betekizunetako batzuk betetzen ez baditu, erakunde kontratatzaileak – Cederna Garalur Elkarte–, erakunde kontratatistari (interesduna den aldetik) entzun ondoren, hurrengo ataletan adierazitako zehapenak ezarri ahal izanen ditu, horiek eragin dituzten kausen arabera.

Zigorrak ezartzea eragin dezaketen jarduerak.

Kontratuaren ondorioetarako, zigorra ezartzeko jardueratzat hartuko da baldintza-agirietan edo Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean zehaztutako eskakizunak urratzen dituen entitate kontratatistaren ekintza edo ez-egite oro.

Jarduera hori, garrantziaren, proportzionaltasunaren eta asmoaren arabera, honela sailkatuko da: arina, larria edo oso larria, honako irizpide hauen arabera:

A).- Arina:

Arinak izanen dira kontratuaren funtzionamenduari eta efizientziari kalte eraginda ere, maltzurkeriaz egindako jardueraren ondoriozkoak ez direnak; pertsonen, animalien edo ondasunen arriskurik eragiten ez dietenak; egindako lanen bizitza ekonomikoa murrizten ez dutenak; eta erabiltzaileei eragozpenik sortzen ez dietenak. Besteak beste, zerrenda zehatza ez izan arren, honako hauek izanen dira:

- Teknikariekin aldizka egin beharreko bisitak ez egitea.
- Lanetan hasierako mekanika operatiboa eta normala ez betetzea.
- Lanak atzeratzea edo etetea, betiere erakunde esleipendunari egotz badakizkioke (betiere, hiru egun baino gutxiagoz), eta zabarkeriaz edo arduragabekeriak jokatzea bere betebeharrak betetzean.
- Erabiltzaileei alferrikako eragozpenak sortzea.
- Obra amaitu ondoren, hondakinak edo soberan dauden materialak berehala ez kentzea.
- Baldintza-agiri honetan ezarritako edozein betebeharrak ez betetzea, baldin eta larritasun handiagoz kalifikatuta ez badago.

B).- Larria:

Hutsegite larriak dira ikuskapenak edo eskatutako lanak edo kontratuko prestazioak eta eskakizunak behar bezala ez egiteagatik egindako lanen bizitza ekonomikoan eragin negatiboa izan dezaketenak, edo erabiltzaileei eragozpenak eta arriskuak eragin diezazkieketenak, edo kontratatutako lanen kontrolari edo udal-ikuskaritzari kalte larria eragin diezazkieketenak. Besteak beste, honako hauek izango dira:

- Kontratua gauzatzean hiru ez-betetze arin gertatzea.
- Edozein ez-betetze arin behin eta berriz gertatzea.
- Lanetan segurtasun- eta osasun-neurriak ez betetzea.
- Kontratututako eragiketutako edo zerbitzuetako bat ez ematea.
- Kontratuaren unitate kudeatzaileak kontratua gauzatzearen inguruan emandako aginduak ez betetzea.
- Kontratua gauzatzean, eskaintzan jasotako giza baliabideak edo baliabide materialak erabiltzeko edo atxikitzeko konpromisoa ez betetzea.
- Egindako kontratuaren ondorioz ezagutzen diren gaiei buruz behar den diskrezioa ez izatea.
- Kontratuan definitutako prestazioak gauzatzean ez-betetze partziala gertatzea.
- Kontratuaren prestazioa hiru egunez edo gehiagorik eta hamabost egun baino gutxiagorik atzeratzea edo etetea, betiere kontratistari egotz badakioke zabarkeria edo arduragabekeria jarraitua.
- Kontratua epe barnean ez formalizatzea, kontratistari egotz dakiokeen arrazoren batengatik.

C).- Hutsegite oso larriak:

Arau-hauste oso larritzat hartuko dira honako hauek:

- Kontratua gauzatzean hiru ez-betetze larri gertatzea.
- Edozein ez-betetze larri behin eta berriz gertatzea.
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko araudia ez betetzea.
- Erakunde kontratatzaileari iruzur ekonomikoa egitea, errealitatearekin bat ez datozen ziurtagirien edo fakturen bidez, edo edozein bitartekoren bidez, dolorik ez egonda ere.
- Kontratuaren prestazio okerra eta akastuna, bai kalitateari, bai kantitateari dagokienez.
- Deialdiaren dokumentazioan esleipen- edo gauzatze-irizpide sozialekin edo ingurumen-irizpideekin lotutako txosten faltsuak aurkeztea.
- Azpikontrataziorako ezarritako baldintzen inguruko arau-haustea.
- Kontratuaren prestazioa hamabost egun edo gehiagorik atzeratzea edo etetea, betiere erakunde kontratistari egotz badakioke, edo obra bertan behera uztea.
- Sekretu profesionalaren betebeharra ez betetzea edo datuak babesteko araudia ez betetzea.
- Faltsutasuna txostenetan.
- Elementu edo instalazio bat hondatzeko aukera nahita ahalbidetzea.
- Aurkeztutako gizarte- eta ingurumen-irizpideak ez betetzea.
- Baldintza-agirietan ezarritako gauzatze-baldintza bereziak ez betetzea, ingurumen-arloko baldintzak ez-betetzea barne.
- Eskaintzan obra egiteko proposatutako epeak ez betetzea, justifikatutako arrazoirik gabe eta aldez aurretik jakinarazi gabe.
- Kontratuaren eskubideak eta betebeharrak lagatzea kontratazio-organoaren berariazko baimenik gabe.

Erakunde kontratistak kontratuko betebeharrak betetzen ez baditu, dagokion **espediente**a irekitzea ekarriko du berarekin. Horretan, kontratazio-organoak ebazpena eman aurretik, kontratistari entzungo dio. Ondoren zehazten diren zigorrak ezarri ahal izanen zaizkio, eta zigor horiek kontratua gauzatzean edo, hala badagokio, fidantzan ematen den hurrengo ziurtagiritik kenduko zaizkio.

Zigorren zenbatekoa.

Atzerapena: kontratua gauzatzen hasteko edo kontratua eteteko atzerapen-egun bakoitzeko, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeko 147. artikuluan aurreikusitako zehapena ezarriko da.

Horiez gain, zehapen hauek ezarriko dira:

- a).- Ez-betetze arinak; ez-betetze arin bakoitza, esleipenaren zenbatekoaren % 1era arteko zenbatekoarekin zigortu ahal izanen da.
- b).- Ez-betetze larriak; ez-betetze larri bakoitza, esleipenaren zenbatekoaren % 1,01etik % 5era arteko zenbatekoarekin zigortu ahal izanen da.
- c).- Ez-betetze oso larriak; ez-betetze oso larri bakoitza, esleipenaren zenbatekoaren % 5etik % 10era arteko zenbatekoarekin zigortu ahal izanen da. Zigor hori % 20koa ere izan daiteke, baldin eta baldintza-agiri honetan kontratua gauzatzeko aurreikusitako baldintza bereziak eta funtsezkoak betetzen ez badira.

25.2 Zigorrak ezartzea

Kontratuak ez betetzearen ondoriozko zigor eta kalte-ordain horiek ezartzeko, aurkakotasuneko espediente sumarioa jarraituko da, KPFLko 146. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Erakunde kontratatzaileak zigor horiek ezartzeko espedientea gertaeren berri idatziz jasotzen duen unean abiaraziko du. Hala ere, betebeharrak ez bete arren, horrek lanak gauzatzeko orduan ondorio larriak eragiten ez duela ondorioztatzen bada edo zigor-espedientea abiaraztea kontratuaren martxarako onuragarria baino kaltegarriagoa izango dela jotzen bada, kontratuaren berme-epea amaitu baino lehenagoko edozein unetan abiarazi ahal izango da espedientea.

Ezarritako zigorrak eta kalte-ordainak berehala gauzatu ahal izanen dira, eta erakunde kontratatzaileak erakunde kontratistari egin behar dizkion ordainketetatik kenduko dira. Ordainketa guztiak eginak baditu, behin betiko bermetik kendu ahal izanen dira zenbateko horiek, eta behin betiko bermea zigorra ordaintzeko nahikoa ez bada, premiamendu-bide administratiboa erabiliz egin ahal izanen da erreklamazioa, zuzenbide publikoko sarreratzat hartu behar delako.

25.3. Kalte-ordaina.

Zigorrak ezartzeak ez du baztertzeko arau-haustearen ondorioz erakunde kontratatzaileari kalte-ordaina ematea; izan ere, kontratua finantzatzeko "Europar Batasunak finantzatzen duen "Next GenerationEU" - Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko" laguntzak ematen direnez, erakunde kontratistari egotz dakiokeen arrazoiaren batengatik laguntza horiek galduko balira, egoera hori kontratua suntsiarazteko arrazoa izango litzateke, eta erakunde kontratista horrek erakunde kontratatzaileari (Cederna Garalur Elkarteak) laguntzaren itzulketa osoaren edo partzialaren adinako kalte-ordaina eman beharko diola ezartzen da.

Hori dela eta, ezartzen da erakunde kontratistari/esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik proiektu honetarako eskatutako dirulaguntza, osoa zein partziala, ukatuz edo galduz gero, kontratista horrek itzuli egin beharko duela Cederna Garalur Elkarteak jaso ez duen dirulaguntza osoa.

Halaber, erakunde kontratista izanen da obrak gauzatzearen ondorioz sortutako kalte-galeren erantzulea hirugarrenen aitzinean; horretarako, dagokion erantzukizun zibileko aseguruia izan beharko du. Kalte eta galera horiek erakunde kontratatzailearen agindu baten berehalako eta zuzeneko ondorioz sortu badira, erakunde kontratatzailea izanen da erantzulea legeetan ezarritako mugen barruan (KPFLko 149. artikulua).

HOGITA SEIGARREN KLAUSULA. - KONTRATUA SUNTSIARAZTEA.

Baldintza-agiri honetan adierazitako kasuetan eta KPFLko 160. eta 175. artikuluetan zehaztutako kasuetan suntsiarazi ahal izango da kontratua; eta kontratazio-organismoak erabakiko du, ofizioz edo erakunde kontratistak eskatuta.

Era berean, kontratazio-organismoak kontratua suntsiarazi ahal izanen du kontratua gauzatzeko zehaztutako guztizko epea betetzen ez denean, edo epe partzialak betetzen ez direnean, eta guztizko epea betetzea ezinezkoa izango dela aurreikusten denean, betiere, kontratazio-organismoak zigorrak ezartzea erabakitzen ez badu, 26. klausularekin bat etorruta.

Halaber, kontratua suntsiarazteko arrazoiak izanen da 'NextGenerationEU0 funtsekin kontratua finantzatzearen ondoriozko berariazko betebeharrak betetzen ez badira (SEEParen esparruan), 21.9 atalean jasotakoak ("Europar Batasunak finantzatzeko duen 'Next GenerationEU' - Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana"-ren inguruko betebeharrak) eta baldintza-agiri honetako hogeita hamaikagarren klausulan ("Araubide Juridikoa eta Baliabideak") jasotakoak.

Kontratua suntsiarazten bada, proiektu teknikoaren arabera egindako obrak egiaztatu, neurtu eta likidatuko dira, eta erakunde kontratistaren aldeko edo kontrako saldoak finkatuko dira. Erakunde kontratistari zitazioa egin beharko zaio egiaztapen- eta neurketa-egintzara joan dadin.

Kontratua kontratistaren erruz suntsiarazi bada, behin betiko bermea konfiskatuko da; horrek, ordea, ez dio inolako kalterik ekarriko administrazioari eragindako kalte eta galeren kalte-ordaina ordaindu behar izateari, bermearen zenbatekoa gainditzen duen zenbatekoan.

HOGITA ZAZPIGARREN KLAUSULA. - OBRAREN ZUZENDARI TEKNIKOAK.

Obraren zuzendari teknikoak erakunde kontratatzaileak -Cederna Garalur Elkarteak- izendatutako pertsona da; honek titulazio egokia eta behar besteko ardura izan behar du obra zuzentzeko eta kontrolatzeko. Erakunde kontratatzailearen ordezkartza bere gain hartuko du erakunde kontratistaren/esleipendunaren aurrean.

Baldintza-agiri honek xede dituen obrei dagokienez, pertsona hori Juan Carlos Ovalle Cortisoz jauna izanen da, KREAN KOOP. ELK. ingeniaritza-estudioko 24967 elkargokide-zenbakidun bide, ubide eta portu ingeniaria, edo, hala badagokio, arlo horretako teknikari bat, ingeniaritza-estudio horrek berariaz horretarako izendatua.

Zuzendari teknikoak bere gain hartuko ditu eraikuntza-obretan segurtasun- eta osasun-arloko gutxienezko xedapenak ezartzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretutik eta gai horri buruzko gainerako araudi bateragarritik eratorritako eginkizunez gain, KPFLko 169. artikuluan aurreikusitako kontratuaren arduradunaren eginkizunak, eta, zehazki, honako hauek:

- Kontratua betearaztearen jarraipen materiala egitea, erakunde kontratistak dagozkion betearazpen-betebeharrak kontratuan adostutako baldintzetan betetzen dituela egiaztatzeko.
- Erakunde kontratista/esleipendunak gizarte-, zerga- eta ingurumen-arloan dituen betebeharrak benetan betetzen dituen egiaztatzea, baita azpikontratistei dagokienez ere, halakorik balego. Halaber, kontratuan ezarritako betebeharrak betetzen direla egiaztatzea, dokumentazioa aurkeztea edo administrazio-izapideak egitea

- Beharrezkoak diren bilerak sustatzea, kontratuaren xedea gauzatzean sor daitezkeen edozein gorabehera konpontzeko.
- Erakunde kontratistari behar diren jarraibideak ematea kontratua itundutako baldintzetan betetzen dela ziurtatzeko. Jarraibide horiek berehala betearaziko dira, pertsonen segurtasunari eragin diezaioketen heinean edo, aplikazioa berandutzeagatik, gerora alferrikakoak erator daitezkeenean, kontratua gauzatzearen arabera. Gainerako kasuetan, eta erakunde kontratista/esleipendun horrek desadostasuna agertuz gero, kontratazio-organoak hartu beharreko neurriari buruzko ebazpena emanen du, bidezkoak izan daitezkeen kalte-ordainak gorabehera.
- Kontatua ez betetzeagatik zehapenak ezartzea proposatzea.
- Kontratua gauzatzeak eragindako kalte-galeren erreklamazio-espedienteetan txostena ematea.

HOGEITA ZORTZIGARREN KLAUSULA. - KUDEAKETA UNITATEA.

Kontratuaren Kudeaketa Unitateari dagokio kontratua nola gauzatzen den gainbegiratzeko, ikuskatzeko eta kontrolatzeko, KPFLko 141.1. artikulua arabera; **Cederna Garalur Elkartearen GERENTZIAKO ZUZENDARITZA** da irudi hori, eta hitzartutako prestazioa behar bezala egiten dela ziurtatzeko beharrezkoak diren jarraibideak eman ahal izanen ditu.

Kudeaketa Unitateari dagokio obrak behar bezala egiteko ikuskapena, egiaztapena eta zaintza egitea. Beharrezkoa izanez gero, interpretazio teknikorako jarraibideak eman ahal izanen dizkio erakunde kontratistari. Horretarako, kontratua gauzatzen den bitartean, Kudeaketa Unitateak beharrezkotzat jotzen duen guztietan gainbegiratu ahal izango ditu obrak, eta lana behar bezala kontrolatzeko egokitzen jotzen duen informazioa eskatu ahal izanen du. Erakunde kontratistak, edo horren mende dauden pertsonak, kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen edo nahasten duten egintzak edo omisioak egiten badituzte, Kudeaketa Unitateak neurri zehatzak hartzeko eska dezake, hitzartutakoa betetzeko ordena egokia lortzeko edo berrezartzeko.

Erakunde kontratistak/esleipendunak nahitaez lagundu beharko dio Kudeaketa Unitateari, hari agindutako betebeharrak behar bezala bete ditzan. Kudeaketa Unitateak, kontratuaren arduraduna den aldetik, kontratua behar bezala betetzen dela ikuskatzeko, kontrolatzeko, egiaztatze eta zaintzeko eginkizunari dagokionez, behar diren eginkizun guztiak hartuko ditu bere gain kontratista/esleipendunarekiko, eta zehazki honako hauek:

- Kontratistari/esleipendunari, zuzenean edo haren agindupean dauden langileen bidez, kontratu-baldintzak bete ditzala eskatzea.
- Obrak eskaintzari edo behar bezala onartutako aldaketei zorroztz lotuta egiten direla eta lan-programa beteko dela bermatzea.
- Preskripzio teknikoek haren esku uzten dituzten baldintza teknikoak edo obra behar bezala gauatzeko egokitu beharrekoak definitzea.
- Interpretazioari lotuta sortzen diren arazo tekniko guztiak ebaztea, betiere kontratuaren baldintzak aldatzen ez badira.
- Kontratua behar bezala betetzea eragozten duten edo kontratua aldatzea egokiagoa litzatekeela adierazten duten gorabeherak edo arazoak aztertzea, eta, hala badagokio, dagozkion proposamenak izapidetzea.

HOGEITA BEDERATZIGARREN KLAUSULA. - DATU-KONFIDENTZIALITASUNA ETA - TRATAMENDUA

29.1 Konfidentzialtasuna.

Erakunde kontratistak/esleipendunak (datuen tratamenduaren arduradun gisa) eta bertako langileek, integritate- eta konfidentzialtasun-printzipioak betez, eskura dituzten datu pertsonalak segurtasun egokia bermatzeko moduan tratatu behar dituzte, baimenik gabeko edo legez kanpoko tratamenduaren aurkako babesa barne, baita datu horien galera, suntsiketa edo ustekabeko kaltearen aurkako babesa aintzat hartuta. Horretarako, neurri tekniko edo antolamendu-neurri egokiak aplikatuko ditu, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoan eta datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko 2016/679 Erregelamenduan ezarritakoaren arabera. Betebehar hori sekretu profesionalaren betebeharren osagarria da, eta bere horretan iraunen du, nahiz eta datuen tratamenduaren arduradunarekin (Cederna Garalur Elkarte) kontratua amaitu.

Erakunde kontratistak kontratua gauzatu behar duela-eta eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu egin beharko du. Betebehar horrek bost urtez iraunen du, informazioa ezagutzen denetik zenbatzen hasita.

Enpresek konfidentzialtzat hartu duten informazioa eta enpresa horiek emandako informazio hori bera ezin izanen da zabaldu. Horretarako, pertsona/erakunde lizitatzailerik erantzukizunpeko adierazpenean adierazi beharko dute zein agiriatarako proposatzen duten konfidentzialtasun hori. Konfidentzialtasun-adierazpena ezin izanen da proposamen osora zabaldu. Hala egiten badu, kontratazio-organoak, modu arrazoituan, sekretu tekniko edo komertzialei eragiten ez dien dokumentazioa zehaztuko du.

29.2 Datuen babesa.

Datuak Babesteari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorreko (aurrerantzean, DBEO) 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, pertsona/erakunde lizitatzailerik jakinarazten zaie kontratazio-espediente honetan parte hartzeagatik emandako datu pertsonalen tratamenduen arduraduna Cederna Garalur Elkarte dela.

Tratamenduaren xedea da kontratazio-espedientea kudeatzea eta haren jarraipena egitea eta, ondoren, kontratua gauzatzea.

Aurreikusitako datu-lagapenak Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Legeak eta Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak zehazten dituzte.

Datuen tratamenduaren oinarri legitimoa tratamenduaren arduradunari aplika dakiokkeen legezko betebehar bat betetzea da (DBEOko 6.1.c artikulua, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeari dagokionez), eta kontratua garatzea (DBEOko 6.1.b artikulua), erakunde kontratistari/esleipendunari dagozkion datuen tratamendurako.

Datuak esleipena kudeatzeko eta kontratua gauzatzeko behar den denboran tratatuko dira, eta aldeetako edozeinek bere eskubideak defendatzeko balia ditzakeen ekintzen preskripzio-epeek iraun bitartean mantenduko dira. Azkenik, artxibatu eginen dira, Artxiboari eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen arabera, eta ezeztatu eginen dira soilik Nafarroako Toki Entitateek dokumentuak ebaluatzeko eta ezabatzeko emandako jarraibideen arabera (51/2016 Foru Agindua).

Titularrek datuak eskuratzeko, ezabatzeko, zuzentzeko eta mugatzeko eskubidea erabili ahal izanen dute, legez aurreikusitako kasuetan. Aurka egiteko eskubidea ere baliatu ahal izanen dute, baldin eta inguruabar jakin batzuk gertatzen badira eta haien egoera partikularrekin zerikusia duten arrazoiengatik. Hori guztia erakunde kontratatzaileira (Cederna Garalur Elkarteak) zuzenduta egin ahal izanen da (bertan, eskubidea gauzatzeko ereduak emanen zaizkie), baita erakunde horren webgunearen bidez ere (www.cederna.eu/eus).

Era berean, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan (www.aepd.es) erreklamazioa aurkezteko eskubidea dute, baldin eta irizten badiote tratamendua ez datorrela bat indarrean dagoen araudiarekin, edo Datuak Babesteko ordezkariekin harremanetan jar daitezke, webgunean ageri den helbidean.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoan eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean xedatutakoa betez, lizitatzaleei jakinarazten zaie beren eskaintza eta kontratazioa egiteko behar diren gainerako agiriak aurkeztuta jasotzen diren datu pertsonalak erakunde kontratatzaileak tratatuko dituela, kontratuaren garapena behar bezala mantentzen, betetzen eta kontrolatzen dela bermatze aldera.

HOGITA HAMARGARREN KLAUSULA. - KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA.

Kontratu honek izaera administratiboa du, KPFLko 34. artikuluan aurreikusitako ondorioen arabera.

HOGITA HAMAIKAGARREN KLAUSULA.- ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ERREKURTSOAK.

Kontratu honek izaera administratiboa du, eta baldintza-agiri honek arautzen du, bere administrazio-klausulekin eta zehaztapen teknikoekin, eta, bertan aurreikusten ez den guztian, Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea aplikatuko da, baita kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapen ere, bai Estatuko araudiari dagokionez (modu osagarrian), bai Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, haren esparruan aplikagarriak badira.

Horrez gain, kontratu hau Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko (SEEP) funtsekin finantzatuta dagoenez, honako arau hauek zaizkio aplikagarri:

- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.
- 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 2021/241 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021eko otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoa ezartzen duena.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020/852 (EB) Erregelamendua, 2020ko ekainaren 18koa, inbertsio jasagarriak errazteko esparru bat ezartzei buruzkoa eta 2019/2088 (EB) Erregelamendua aldatzen duena; izan ere, SEEParen barnean gauzatuko diren jardura guztiek bete behar dute, aipatutako Erregelamenduko 17. artikuluan jasotakoaren arabera, ingurumen-helburuei kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa.
- 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) ERREGELAMENDUA, BATZORDEARENA, zenbait laguntza-kategoria barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dituen, Tratatu 107. eta 108. artikulua aplikatuz.
- "Kalte esanguratsurik ez eragiteko" printzipioa aplikatzei buruzko gida teknikoa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduaren arabera (2021/C 58/01) ("Europako Batzordearen Gida Teknikoa").
- 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Herri Administrazioa modernizatzeko premiazko neurriak onartzen dituen, eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (SEEP) gauzatzeko.
- HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema konfiguratzeko duena.

.- HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituen, mugari eta helburuen betetze-mailaren jarraipena egiteko, eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaien neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-exekuzioaren jarraipena egiteko.

.- Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzen duten prozeduretan interes-gatazkarako arriskua sistematikoki analizatzeari buruzko urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua.

.- Batzordearen, iruzurraren aurka borrokatzeko bulegoaren, kontuen auzitegiaren eta Europako Fiskaltzaren kontrolak, eta organo horiek kontratuari buruzko informazioa eskuratzeko duten eskubidea, baita kontratistak informazio hori emateko duen betebeharra ere. Halaber, kontratistak eta azpikontratistak dokumentazioa gordetzeko arauak bete beharko dituzte.

.- Cederna Garalur Elkarteak 2024ko azaroaren 6an onartu zuen iruzurraren aurkako plana, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko neurriak kudeatzeko eta gauzatzeko (www.cederna.eu/eus).

.- Iruzurrari eta ustelkeriari aurrea hartzeari eta zuzentzeari, interes-gatazkari aurrea hartzeari eta finantzaketa bikoitzari buruzko araudia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduan, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzkoan, aurreikusitakoaren arabera.

... eta kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapen, bai modu osagarrian Estatuko araudiari dagokionez, bai Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, horren esparruan aplikagarriak badira.

Aplikagarria da iruzurrari eta ustelkeriari aurrea hartzeari eta zuzentzeari, interes-gatazkari aurrea hartzeari eta finantzaketa bikoitzari buruzko araudia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduan, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzkoan, aurreikusitakoaren arabera.

Baldintza-agiri honek, bere eranskinek eta gainerako agiri erantsiek kontratu-izaera izanen dute. Baldintza-agiri hau eta gainerako kontratu-agiriak bat ez badatoz, baldintza-agiri hau nagusituko da. Era berean, kontratu izaera izango dute erakunde kontratista esleipendunaren eskaintzak eta kontratua formalizatzeko agiriak.

Kontratuaren klausulak (edozein zehaztapenekoak direla ere), gainerako kontratu-dokumentuak eta gauzatzean aplikatzekoak diren jarraibideak edo arauak ez ezagutzeak ez du pertsona/erakunde esleipenduna salbuesten klausula horiek betetzetik.

Kontratazio-organismoak eskumena du kontratua interpretatzeko, kontratua betetzeak sortzen dituen zalantzak argitzeko, interes publikoko arrazoiengatik aldatzeko, suntsiaraztea erabakitzeko eta suntsiaraztearen ondorioak zehazteko; hori guztia, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean adierazitako muga barnean eta baldintzei eta ondorioei lotuta.

Betebeharrak betetzean eta xedapen hauek interpretatzean sortzen diren gorabehera guztiak kontratazio-organismoak ebatziko ditu lehenik.

Plegu honen eta berau betearazteko ematen diren ebazpenen aurka, aukeran, honako errekurtsio hauek aurkeztu ahal izanen dira:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den erakunde kontratatzailearen organoaren aurrean -Cederna Garalur Elkarte-, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, hala badagokio, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- Kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa Kontratu Publikoen Auzitegiaren aurrean, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeko 121. artikuluan eta

hurrengoetan xedatutakoaren arabera. Horretarako, nahitaezkoa izanen da lizitatzailleek posta elektronikoa bat ematea jakinarazpenak bitarteko telematikoen bidez egiteko.

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurtsoaren xedeko egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aurrera.

HOGITA HAMABIGARREN KLAUSULA. – HONDAKINEN KUDEAKETA.

.- Obren **Proiektu Teknikoaren Memoria dokumentuko 8. eranskinaren** edukia hartuko da kontuan.

.- Baldintza-agiri honen 20. klausulan adierazten den moduan, erakunde kontratistak/esleipendunak **Hondakinak Kudeatzeko dagokion Plana** idatzi beharko du, eraikuntza- eta/edo eraispen-hondakin ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituzten otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuko 5.1. artikulua eta martxoaren 28ko 23/2011 Foru Dekretuko 5.1 artikulua betez, eta Cederna Garalur erakunde kontratistari garaiz eta behar den moduan eman beharko dio.

.- Obran sortutako hondakin guztiak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duen dokumentazio guztia eduki eta entregatu beharko du, Foru Dekretuan eta/edo otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan jasotako baldintzetan, baldin eta obren izaera eta ezaugarriak kontuan hartuta aplikagarria bada.

.- Hondakinak Kudeatzeko aipatutako Planean **honako baldintza hauek** bete beharko dira:

.- Eraikuntza-lekuan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakin ez-arriskutsuen % 70 gutxienez (pisuan) –alde batera utzita 2000/532/EC Erabakiak ezarritako Europako Hondakin Zerrendan 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala– berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk berreskuratzeko prestatuko da, betelanearako barne; hondakinak erabiliko dira beste material batzuk ordezkatzeko, bat etorri hondakin hierarkiarekin eta eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko Europako Batasunaren protokoloarekin.

.- Eraikuntzarekin eta eraispenarekin lotutako prozesuetan, operadoreek hondakin sorrera mugatu beharko dute, EBren eraikuntza- eta eraispen-hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorri, eskura dauden praktika onenak kontuan hartuta, eta eraispen selektiboa erabiliz substantzia arriskutsuak segurtasunez ezabatu eta manipulatu ahal izateko eta materialak selektiboki ezabatuz kalitate handiko berrerabilera eta birziklatzea errazteko, eraikuntza- eta eraispen-hondakinatarako eskura dagoen sailkapena erabiliz. Halaber, eraispina, ahal dela, modu selektiboan egitea ezarriko da, eta sailkapena, lehentasunez, hondakinak sortzen diren lekuan egingen da.

Hondakin arriskutsuak sortuz gero (amiantoa, kasurako), hondakin horiek tratatzeko baimendutako kudeatzaileen bidez kendu, biltegitatu eta kudeatu beharko dira.

.- Eraikinen diseinuek eta eraikuntza teknikak zirkulartasuna sustatuko dute, eta, bereziki, erakutsiko dute (eraikinak desmuntatzeko edo egokitzeko gaitasuna ebaluatze aldera), ISO 20887 arauari dagokienez, nola dauden diseinatuta baliabideen erabilerari dagokionez efizienteagoak, moldagarriagoak, malguagoak eta desmuntagarriak izateko, berrerabilpena eta birziklapena ahalbidetzeko.

.- Esku-hartzeetan sortutako hondakinak kudeatzeko hiru baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko, hondakinak eta eraikuntzako materialak dituen pertsonak **baldintza horiek betetzen direla egiaztatuko duen txostena aurkeztu beharko du, obra-zuzendaritza teknikoak sinatuta. Txosten horretan,**

hondakinak kudeatzaile baimenduetan berrerabiltzeko, birziklatzeko edo balorizatzeko prestatzeko erabili direla eta finkatutako % 70eko ehunekoa betetzen dela egiaztatzen duen agiri bat jaso beharko da.

.- Zehazki, Hondakinak Kudeatzeko Azterketan jasotako hondakinak (obren 'proiektu teknikoaren memoria' dokumentuaren 8. eranskina) jarraian jasotakoak dira.

Material	Volumen (m³)	Densidad (tn/m³)	Peso (tn)
Tierras producto de la excavación	6.386,97	1,85	11.815,89
Hormigón	126,00	2,50	315,00
Mezclas bituminosas con alquitrán	34,12	2,40	81,9

Horietan ez dira lurrak kontuan hartzen; alabaina, goian deskribatutakoak aipatutako 3 hondakinen % 70 baino gehiago dira. Lurren kasuan ere **baldintza hori bete beharko da**, eta halaxe betetzen dela justifikatu beharko da.

.- **Hondakin-kudeatzaileen ziurtagirien** bidez egiaztatuko da hori, eta emandako hondakinen HEZ kodea (hondakinen Europako zerrenda) ere jasoko du, obran egindako bereizketa egiaztatu ahal izateko. Sortutako hondakin arriskutsuei buruzko ziurtagiria ere gehituko da, halako hondakinik badago, % 70eko helbururako zenbatzen ez badira ere.

.- Erakunde kontratistak/esleipendunak ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko (DNSH) printzipioaren aplikazioa bete beharko du.

HOGEITA HAMAHIRUGARREN KLAUSULA. – DNSHa BETETZEA.

.- Gai horri dagokionez –DNSHa betetzea –, nahitaez betetzekoak izanen dira honako baldintza hauek:

1.- Kutsaduraren prebentzioari eta kontrolari dagokionez

Eraikuntzan erabilitako eraikuntzako osagaiek eta materialek ez dute amiantorik izanen, ezta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1907/2006 (EE) Erregelamenduaren XIV. eranskinean identifikatutako substantziarik ere (Osagaiaren eta inbertsioaren 8. atalean adierazitako mailak errespetatuko dira).

Obra-fasean zarata, hautsa eta emisio kutsatzaileak murrizteko neurriak hartuko dira, eta lurzoruen eta uraren balizko kutsadurari dagokionez indarraldian dagoen araudia betez gauzatuko da.

2.- Biodibertsitatearekiko sentikorrak diren eremuetan (eremu babestuen Natura 2000 sarea, UNESCOren Munduko Ondareko guneak eta biodibertsitaterako funtsezkoak diren eremuak eta babestutako beste eremu batzuk barne) edo horietatik gertuko eremuetan eginen diren birgaitze-jarduerak

Habitaei buruzko Zuzentarauko 6 (3) eta 12. artikulua eta Hegaztiei buruzko Zuzentarauko 5. artikulua bete beharko dira. Horrez gain, nahitaezkoa denean, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa (IIE) eginen da, IIE Zuzentaruaren arabera.

Enpresa kontratistak eta azpikontratistek nahitaez bete beharko dituzte etiketatze berdearen eta digitalaren arloko konpromisoak. Halaber, baldintza-agiri honetan ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa (DNSH) aplikatu beharko dute.

DNSHaren arloan zein etiketatze berdearen eta etiketatze digitalaren arloan neurri zuzentzaileak hartzeko, agintaritza arduradunaren agindua ezartzen da kontratua aldatzeko arrazoi gisa.

Antsoainen (Nafarroa), 2024ko azaroaren 8an.

María Aranzazu Arregui Alberro and.

Cederna Garalur Elkartearen lehendakaria

Baldintza-agiri hau Cederna Garalur Elkartearen Zuzendaritza Batzordeak 2024ko azaroaren 6ean hartutako erabakiaren bidez onartu dela jasota uzteko.

I. ERANSKINA

LIZITATZAILEA EDO ERAKUNDE LIZITATZAILEAK IDENTIFIKATZEKO EREDUA ETA HELBIDE ELEKTRONIKOA, JAKINARAZPENETARAKO

Aitortzailea:

Jn./and.:, NAN zk.:, herria:
....., helbidearen posta-kodea:, udalerria:, kalea:
....., zk.:, honako honen izenean (hala badagokio):, IFK:
....., helbidearen posta-kodea:, udalerria:, kalea:, zk.:,
telefonoa: eta posta elektronikoa, Cederna Garalur Elkarteak
sustatutako **“DONEZTEBE-ELIZONDO TARTEAN BIZIKLETENTZAKO ETA
OINEZKOENTZAKO BIDE-TARTEA (BIDASOAKO BIDE BERDEA) EGOKITZEKO OBRAK”**
kontratazeko baldintza-agirien berri izan ondoren, honako honen bitartez,

ADIERAZTEN DU:

Kontratazio publikoaren arloko erreklamazioen kasuan, baliabide telematikoen bidez jakinarazpenak egiteko posta elektronikoaren helbidea honako hau da:

Kontratazioa arautzen duen plegua ezagututa, kontratua eta aurkeztutako eskaintza zorrotz betetzeko konpromisoa hartzen du. Horretarako, honako gutun-azal hauek erantsi ditu:

- "A" GUTUN-AZALA: "Administrazio-dokumentazioa".
- "B" GUTUN-AZALA: "Formula bidez kuantifika ez daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa".
- "C" gutun-azala: "Formula bidez kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa".

.....(e)n, 2024koaren(e)(a)n.

(Sinadura)

Datuen babesa: Dokumentu honetan erregistratutako datuen tratamenduaren arduraduna Cederna Garalur Elkarteak da. Tratamenduaren helburuei eta gainerako baldintzei buruzko informazio zabalagoa kontratazio hau arautzen duten administrazio-klausulen agiriko 29. klausulan adierazten da.

II. ERANSKINA

KONTRATATZEKO ESKATZEN DIREN BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

Jn./and.:, NAN zk.:, herria:
....., helbidearen posta-kodea:, udalerria:, kalea:
....., zk.:, honako honen izenean (hala badagokio):, IFK:
....., helbidearen posta-kodea:, udalerria:, kalea:, zk.:,
telefonoa: eta posta elektronikoa, Cederna Garalur Elkarateak
sustatutako **“DONEZTEBE-ELIZONDO TARTEAN BIZIKLETENTZAKO ETA
OINEZKOENTZAKO BIDE-TARTEA (BIDASOAKO BIDE BERDEA) EGOKITZEKO OBRAK”**
kontratatze baldintza-agirien berri izan ondoren, honako honen bitartez,

AITORTZEN DU:

- a).- Gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren inguruko baldintzak betetzen ditu, eta, hala badagokio, sinatzaileak behar bezalako ordezkartza du.
- b).- Kontratua gauzatzeko kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalari dagozkion baldintzak betetzen ditu.
- c).- Ez du kontratatze debekurik, eta indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ditu.
- d).- Kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzeko gainerako legezko betebeharrak eta kontratazio-agirietan ezarritakoak betetzen ditu.
- e).- Bere eskaintza ondoen baloratutakoa bada, baldintza-agiri honetan eskatzen diren agiriak badituela eta baliozkoak direla egiaztatze konpromisoa hartzen du, eskatzen zaionetik gehienez ere zazpi eguneko epean.
- f).- Kontratua sinatu aurretik, eskatzen zaizkion dokumentuak aurkezteko konpromisoa hartzen du, kontratazio-agirietan ezarritakoaren arabera.
- g).- Kontratu hau gauzatzeko, ondoren aipatzen diren azpikontratatistak izanen ditu, eta horien parte hartze konpromiso formal du (hala badagokio):
- h).- Edozein mailatako Nafarroako epaitegien eta auzitegien jurisdikzioaren menpe jartzen da gorabehera guztietarako, eta uko egiten dio, atzerriko enpresen kasuan, haiei legokiekeen jurisdikzio-foruari.
- i).- Dokumentu honen bidez baimena ematen da, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduko 6. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako (95/46/EE Zuzentaraua -DBEO, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra indargabetzen duena), nire eta ordezkatzan dudaren enpresaren datu pertsonalak tratatzeko, kontratu hau

esleitzearekin, gauzatzearekin eta deuseztatzearekin lotutako berariazko helburuetarako, baita egintza horietatik eratorritako jardueretarako ere.

j).- Dokumentazio konfidentzial hau aitortzen du:

k).- ETEa da: BAI/EZ (ezabatu dagokiona).

l).- Esleipendun izateko proposamena jasoz gero, honako agiri hauek berrerabiltzea eskatzen du:

-
-
-

Prozedura honetan aurkeztutako agiriak. Prozedura horretanlanen esleipenduna izan zen data honekin:, eta egiaztatutako baldintzak ez direla aldatu eta indarraldian jarraitzen dutela adierazten du.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, idazki hau egin eta sinatzen dut.

.....(e)n, 2024koaren(e)(a)n.

(Sinadura)

Datuen babesa: Dokumentu honetan erregistratutako datuen tratamenduaren arduraduna Cederna Garalur Elkartea da. Tratamenduaren helburuei eta gainerako baldintzei buruzko informazio zabalagoa kontratazio hau arautzen duten administrazio-klausulen agiriko 29. klausulan adierazten da.

III. ERANSKINA

FORMULA BIDEZ BALORA DAITEZKEEN IRIZPIDEEN INGURUKO ESKAINTZA ('C' gutun- azalean sartu)

Jn./and.:, NAN zk.:, herria:
....., helbidearen posta-kodea:, udalerria:, kalea:
....., zk.:, honako honen izenean (hala badagokio):, IFK:
....., helbidearen posta-kodea:, udalerria:, kalea:, zk.:,
telefonoa: eta posta elektronikoa, Cederna Garalur Elkarteak
Erkidegoko atalasetik beherako prozedura irekiaren bidez sustatutako **“DONEZTEBE-
ELIZONDO TARTEAN BIZIKLETENTZAKO ETA OINEZKOENTZAKO BIDE-TARTEA
(BIDASOAKO BIDE BERDEA) EGOKITZEKO OBRAK”** kontratatze baldintza-agirien berri
izan ondoren, adierazten dut ezagutzen ditudala administrazio-klausulen eta preskripzio
teknikoen agiriak, eta oso-osorik onartzen ditudala. Formulen bidez balora daitezkeen irizpideei
dagokienez, ESKAINTZA/PROPOSAMEN hau egiten dut:

Gizarte-alderdiak:

BAI/EZ (ezabatu ez dagokiona). Kontratua gauzatuko duten langileek gutxienez
8,00 orduko sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak egiteko konpromisoa hartzen dut,
indarraldian dagoen araudian eta dagokion hitzarmenean onartutako berdintasun- eta
adiskidetze-arloko eskubideen inguruan.

BAI/EZ (ezabatu ez dagokiona). Kontratuaren esleipen-prezioaren ehuneko bat
Gizarteratze eta Laneratze Zentroen eta/edo Enplegu Zentro Berezien bidez
kontratatze konpromisoa, % hainbateko portzentajea.

Eskaintza ekonomikoa: (zenbakiz eta letraz adierazi) –BEZik gabe–.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, idazki hau egin eta sinatzen dut.

.....(e)n, 2024koaren(e)(a)n.

(Sinadura)

Datuen babesa: Dokumentu honetan erregistratutako datuen tratamenduaren arduraduna Cederna Garalur Elkarteak da. Tratamenduaren
helburuei eta gainerako baldintzei buruzko informazio zabalagoa kontratazio hau arautzen duten administrazio-klausulen agiriko 29. klausulan
adierazten da.

IV. ERANSKINA

SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANEKO (SEEP) JARDUKETAK GAUZATZEAREN INGURUKO ADIERAZPENAK

Espedienteak: **“BIDEGORRIA ETA OINEZKOENTZAKO BIDEA DEN BIDASOAKO BIDE
BERDEA EGOKITZEA DONEZTEBEREN ETA ELIZONDOREN TARTEAN”** proiektuko lanak,
Cederna Garalur Elkarteak sustatuta.

Jn./and.:, NAN zk.:,
.....(erakundearen izena).....
erakundearen aholkulari delegatua edo kudeatzailea, IFK zk.:, eta zerga-
egoitza duenak, SEEPetik datozen
baliabideekin finantzatutako kontratu baten kontratista den aldetik, honako AITORPEN hauek
egiten ditu:

1.- Interes-gatazkarik ezaren adierazpena:

Goian aipatutako prozeduran inpartzialtasuna bermatze aldera, sinatu duen pertsonak honako hau
adierazi du:

Lehena. Honako hauen berri baduela:

1.- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 Erregelamenduko (EB,
Euratom) 61.3 artikulua («Interes-gatazka», EBren finantza-erregelamendua) ezartzen duenez, *“interes-
gatazka egonen da funtzioen egikaritze inpartziala eta objektiboa konprometituta geratzen bada familia-,
afektibitate-, kidesun politiko edo nazionalen arrazoiengatik edo interes ekonomikoko nahiz interes
pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik”*.

2.- Sektore Publikoko Kontratuak buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeko 52. artikulua (*“Interes-
gatazkak konpontzea”*) xedea du lehiaren edozein distorsio saihestea, prozeduraren gardentasuna
bermatzea eta hautagai eta lizitatzailerak guztiei tratu-berdintasuna bermatzea.

3.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua
(*“Abstentzioa”*) ezartzen duenez, prozeduran ez dute esku hartuko *“hurongo atalean adierazitako
inguruabarretako batzuk betetzen dituzten administrazioetako agintariek eta langileek”*, honako hauetan
alegia:

a).- *Interes pertsonala izatea kasuan kasuko gaian edo haren ebazpenak eragina izan dezakeen beste batean; sozietate edo erakunde interesdunaren administratzaile izatea; edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.*

b).- *Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta laugarren mailarainoko odol-ahaidetasuna edo bigarren mailarainoko ezkontza-ahaidetasuna izatea interesdunetako edozeinekin, interesdun erakundeetako edo sozietate administratzaileekin eta prozeduran parte hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin, baita horiekin bulego profesionala partekatzea edo horiekin elkartuta egotea aholkularitzarako, ordezkaritza edo mandaturako.*

c).- *Aurreko paragrafoan aipatutako pertsonaren batekin adiskidetasun estua edo ageriko etsaitasuna izatea.*

d).- *Kasuan kasuko prozeduran peritu edo lekuko gisa parte hartu izana.*

e).- *Gaian zuzenean interesa duen pertsona naturalarekin edo juridikoarekin zerbitzu-harremana izatea, edo azken bi urteetan edozein motako zerbitzu profesionalak eman izana, edozein inguruabar edo lekutan.*

Bigarrena. Ez dagoela EBko Finantza Erregelamenduko 61.3 artikuluan adierazitako “interes-gatazkatzat” har daitekeen inolako egoeratan, eta ez dagoela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan jasotako abstentzio-kausarik, aipatutako prozedurari eragin diezaiokeenik.

Hirugarrena. Konpromisoa hartzen duela geroratu gabe jakinarazteko dagokion organoari egoera hori dakarren edo ekar dezakeen edozein interes-gatazka edo abstentzio-kausa.

Laugarrena. Badakiela interes-gatazkarik ezaren adierazpena faltsua dela frogatuz gero, horrek aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen diziplina-ondorioak, administrazio-ondorioak edo ondorio judizialak ekarriko dituela.

2.- Datuak lagatzeari eta tratatzeari buruzko adierazpena:

Sinatzaileak aplikatu beharreko araudia ezagutzen duela adierazten du, bereziki Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduko 22. artikuluen atal hauek:

1.- Bigarren ataleko d) hizkia: «*suspertze- eta erresilientzia-planaren barnean erreformak eta inbertsio-proiektuak gauzatzera bideratutako neurrien inguruak funtsen erabilera ikuskatzeari eta funts horiek kontrolatzeari dagokienez, ondoren aipatzen diren kategoria harmonizatuak biltzea, bilaketak egitea ahalbidetuko duen formatu elektronikoan eta datu-base bakarrean:*

i. Funtsen azken hartzailearen izena;

ii. Kontratistaren eta azpikontratistaren izenak, funtsen azken hartzailea botere esleitzaila bada, kontratazio publikoaren arloan Batasuneko edo estatuko zuzenbidearekin bat etorritz;

iii. Funtsen hartzailearen titular errealearen edo kontratistaren izen-abizenak eta jaiotegunak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren (26) 3. artikuluko 6. puntuan definitutakoaren arabera;

iv. suspertze- eta erresilientzia-planaren barnean erreformak eta inbertsio-proiektuak gauzatzeko neurrien zerrenda, neurri horien finantzaketa publikoaren zenbateko osoarekin batera. Zerrendak, halaber, mekanismoaren eta Batasuneko beste funts batzuen esparruan ordaindutako funtsen zenbatekoa erakutsiko du».

2.- 3. atala: «Artikulu honetako 2. ataleko d) hizkian aipatutako datu pertsonalak Europar Batasuneko estatu kideek eta Batzordeak bakarrik tratatuko dituzte, aurrekontu-kudeaketa onartzearen eta kontrol-prozesuen inguruko kasuan kasuko auditoretzaren ondorioetarako eta horren iraupenerako, 15. artikulua (2. atala) eta 23. artikulua (1. atala) aipatzen dituzten akordioak aplikatzeari dagokionez. Batzordearen kudeaketa onartzeko prozeduraren esparruan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuen (EBFT) 319. artikuluekin bat etorriz, Mekanismoak txostenak aurkeztu beharko ditu, Finantza Erregelamenduen 247. artikuluan aipatutako finantza-informazioa emateari eta kontuak emateari dagokienez, eta, bereziki, bereizita, urteko kudeaketa- eta errendimendu-txostenean».

Azaldutako esparru juridikoaren arabera, datuak lagatzea eta horiek tratatzea onartzen duela adierazten du, aipatutako artikuluetan berariaz zerrendatutako helburuekin.

3.- Zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoaren inguruko adierazpena:

Sinatzaileak adierazten du ordezkatzeko duen pertsonak/erakundeak arau juridiko, etiko eta moralei dagokienez estandar zorrotzenak hartzeko konpromisoa hartzen duela, eta iruzurrari, ustelkeriari eta interes-gatazkei aurre hartzeko eta horiek antzemateko beharrezko neurriak hartuko dituela, eta, hala badagokio, ikusitako ez-betetzeak dagozkion agintariei jakinaraziko dizkiela.

Horrez gain, SEEParen edukari erreparatuta, konpromisoa hartzen du ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatzeko eta ingurumenean eragin negatibo esanguratsuak saihesteko («DNSH», ingelesezko sigletatik «do no significant harm») plan horren barnean egindako jarduerak gauzatzean. Halaber, ez duela finantzaketa bikoitzik adierazten du, eta, hala badagokio, ez duela Estatuko laguntzen araubidearekin bateraezintasun-arriskurik.

4.- Sei ingurumen-helburuei kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa (DNSH) betetzeari buruzko adierazpena

Sinatzaileak konpromisoa hartzen du, garatu beharreko proiektuaren edo jardueraren bizi-zikloaren fase guztiak kontuan hartuta, bai proiektua ezartzen den bitartean, bai balio-bizitzaren amaieran, DNSH printzipioa betetzeko, hots, «ez duela kalte esanguratsurik eraginen», Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen 2021/241 (EB) ERREGELAMENDUAK eskatzen duena, eta hortaz:

1.- EZ DIE KALTE ESANGURATSURIK ERAGINEN 2020/852 (EB) Erregelamenduko 17. artikuluan aipatzen diren SEI INGURUMEN HELBURUEI, honakoei alegia:

a).- *Klima-aldaketa arintzea - Jarduera batek klima-aldaketa arintzeko helburuari kalte esanguratsua eragiten diola jotzen da, baldin eta berotegi efektuko gasen (BEG) isuri handiak eragiten baditu.*

b).- *Klima-aldaketara egokitzea - Jarduera batek klima-aldaketara moldatzeko helburuari kalte esanguratsua eragiten diola ulertzen da, baldin eta oraingo klima-baldintzen eta etorkizunerako aurrez ikusitakoen ondorio txarrak areagotzen baditu, bai jarduerari dagokionez, bai pertsonen, naturari edo aktiboen dagokienez.*

c).- *Baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera jasangarria eta horien babesa - Jarduera batek baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera eta babes jasangarriei kalte esanguratsua eragiten diela ulertzen da, baldin eta kaltea eragiten badie ur-masen –azaleko urak eta lur azpikoak– egoera onari edo potentzial ekologiko onari eta itsas uren egoera ekologiko onari.*

d).- *Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta horiek birziklatzea barne - Jarduera batek ekonomia zirkularrari –hondakinen prebentzioa eta birziklatzea barne– kalte nabarmena eragiten diola ulertzen da, kasu hauetan: efizientzia eza ugari eragiten baditu materialen erabileran edo baliabide naturalen zuzeneko edo zeharkako erabileran; hondakinen sorrera, tratamendu mekaniko-biologikoa, errausketa edo zabortegietako biltegiatzea nabarmen areagotzen baditu, edo hondakinen epe luzerako ezabaketak ingurumenerako kalte esanguratsua eta epe luzerakoa eragiten ahal badu.*

Egindako edozein obratarako, eta helburu honi dagokionez, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

.- Jarduketak Europako helburu hau bultzatuko du: eraikuntza-lerkuan sortutako eraikuntza- eta eraipen-hondakin ez-arriskutsuen %70 gutxienez (pisuan) –alde batera utzita 2000/532/EC Erabakiak ezarritako Europako Hondakinen Zerrendan 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala– berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk berreskuratzeko prestatuta egotea, betelanak barne, hondakinak beste material batzuk ordezkatzeko erabil daitezten, bat etorri hondakinen hierarkiarekin eta Eraikuntza- eta eraipen-hondakinak kudeatzeko Europako Batasunaren protokoloarekin.

.- Eraikuntzarekin eta eraipenarekin lotutako prozesuetan, operadoreek hondakinen sorrera mugatu behar dute, EBren eraikuntza- eta eraipen-hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorri, eskura dauden praktika onenak kontuan hartuta, eta eraipen selektiboa erabiliz substantzia arriskutsuak segurtasunez ezabatu eta manipulatu ahal izateko eta materialak selektiboki ezabatuz kalitate handiko berrerabilerari eta birziklatzea errazteko, eraikuntza- eta eraipen-hondakinatarako eskura dagoen sailkapena erabiliz.

.- Eraikinen diseinuek eta eraikuntza teknikak zirkulartasuna sustatuko dute, eta, bereziki, erakusten dute, ISO 20887 arauari edo eraikinak desmuntatzeko edo egokitzeko gaitasuna ebaluatzeko beste arau batzuei dagokienez, nola diseinatuta dauden baliabideen erabilerari dagokionez efizienteagoak izateko, eta moldagarriagoak, malguagoak eta desmuntagarriak direla gerora berrerabili eta birziklatu ahal izateko, eraikuntza- eta eraipen-hondakinatarako eskura dauden sailkapen sistemak erabiliz.

e).- *Atmosferaren, uraren edo lurzoruen kutsaduraren prebentzioa eta kontrola - Jarduera batek*

kutsaduraren prebentzioari eta kontrolari kalte nabarmena eragiten diela ulertzen da, baldin eta atmosferara, uretara edo lurzorura isuritako kutsatzaileen kopurua nabarmen areagotzen badu.

f).- *Biodibertsitatearen eta ekosistemen babesa eta leheneratzea* - Jarduera batek biodibertsitatearen eta ekosistemen babesari eta leheneratzeari kalte nabarmena eragiten diola ulertzen da, baldin eta ekosistemen baldintza onei eta erresilientziari kalte egiten badie edo habitat eta espezieen kontserbazio-egoerari kalte egiten badio, bereziki Batasunaren interesekoen kontserbazio-egoerari.

Egindako edozein obratarako, eta helburu honi dagokionez, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

.- Eraikuntza jarduera berriak biodibertsitateko sentikorrak diren eremuetan edo horietatik gertu egingen diren adieraztea. Jarduerak habitaten eta espezieen kontserbazio egoerari kalte egiten ahal dieten adieraztea. Hala bada, Habitategi buruzko Zuzentarauko 6. eta 12. artikulua eta Hegazti buruzko Zuzentarauko 5. artikulua bete beharko dira.

.- Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa (IIE) edo baheketa egingen den adieraztea, IIE Zuzentaruaren arabera.

2.- ENTITATE ESKATZAILEAK EZ DITU BETETZEN JARDUERA BAZTERTUAK, «kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa aplikatzeko gida teknikoan adierazitakoarekin bat, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamendua betez.

Horiek dira jarduera baztertutak:

.- *Petrolio findegia.*

.- *Ikatz-zentral termikoak eta erregai fosilen erauzketa.*

Elektrizitatea edo beroa sortzea erregai fosilak erabiliz eta horiek garraiatzeko eta banatzeko azpiegiturarekin lotutakoak.

.- *Hondakinen ezabaketa (esate baterako, nuklearrak, ingurumenari epe luzeko kalteak eragiten ahal dizkietenak).*

.- *Hondakinak zabortegean uzteko instalazioetako inbertsioak, edo tratamendu biologiko mekanikoko (MBT) instalazioetako inbertsioak, horien edukiera edo balio-bizitza luzatzea ekartzen dutenak (hondakin arriskutsu ez birziklagarrien tratamendurako instalazioak izan ezik).*

.- *EBko isurketa eskubideen merkataritza araubideak estalitako jarduerak (Berotegi efektuko gasak isurtzeko eskubideen merkataritza araubidea arautzen duen martxoaren 9ko 1/2005 Legearen I. eranskinaren arabera).*

3.- ERAKUNDE ESKATZAILEAK AURREIKUSTEN DU PROIEKTUAK EZ DUELA ZUZENEKO ONDORIORIK IZANEN INGURUMENEAN, EZ ETA ZEHARKAKO ONDORIO PRIMARIOK ERE, hau da, proiektua edo jarduera bukatuta gertatzen ahal direnak.

Aitorpen honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada, itzuli egin beharko dira jasotako laguntzak eta dagozkien berandutze-interesak, dagokion itzultze-prozedura bete ondoren.

5.- Iruzuraren aurka borrokatzeko adierazpena (OLAF)

Sinatzaileak behar diren eskubideak eta sarbideak ematen ditu Europako Batzordeak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF), Europako Kontuen Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta Estatuko agintari eskudunek beren eskumeneko eginkizunak eginen dituztela bermatzeko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren laguntzei loturik.

Halaber, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduko 22.2.e) artikuluan aurreikusitako baimena berariaz ematen du.

Eta jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen da.

.....(e)n, 2024koaren(e)(a)n.

Sinatua: Kargua:

Datuen babesa: _Dokumentu honetan erregistratutako datuen tratamenduaren arduraduna Cederna Garalur Elkartea da. Tratamenduaren helburuei eta gainerako baldintzei buruzko informazio zabalagoa kontratazio hau arautzen duten administrazio-klausulen agiriko 29. klausulan adierazten da.